

2019
KOLDO ELEIZALDE
LEHIAKETAK
XXXIV. edizioa



Antolatzailea:



Begarako Udala
Euskara batzordea

Argitaratzailea: Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzua

Azaleko irudia: Jon Balentziaga

Diseinua eta maketazioa: Gertu Inprimategia. Oñati.

Inprimategia: Gertu Inprimategia. Oñati

Lege gordailua: SS 42-2015

SARRERA	5
---------------	---

IPUINA

1. taldea:

Saria: Elurretako panpina. Ane Molinero	7
Saria: Izar balea. Carla Beitia	11
Saria: Txoriak ez dira gureak. Ekia Mendieta	15

2. taldea:

Saria: Lehoi hagingabea. Unai Anduaga	19
Saria: Noa, Izar eta Laida abenturaren bila. Laida Akizu	23
Saria: Sagarrondo magikoa. Naia Agirrebeña	29
Saria: Mutikoa eta txoria. Mariñe Sotil	33

3. taldea:

Saria: “Kaialde ikastola” Komuneko paper ausartek salbatua.	
June Kalboetxeaga	37
Saria: Ostadarra. Maite Errasti	41
Saria: Bete daitekeen ametsa. Oier Lete	45
Saria: Leialtasunaren iturria. Ariane Igartua	51

4. taldea:

1. saria: Bihotz izoztuari. June Odriozola	55
2. saria: Sufrimenduak irabazten du. Mainer Iribecampos	61
3. saria: Nire bizitza, nire erabakiak. Ane Larrañaga	69

5. taldea:

1. saria: Alzheimerren mina. Ainhua Pardina	77
2. saria: Etorkizuna: istorio baten ispilua. Amaia Alonso	87
3. saria: Toka zekizuekeen alabarik onena. Nola bestela! Mari Joxe Azurtza ...	95

POESIA

5. taldea, poesia:

1. saria: **Igel mela eta Zapo blai: meatz-putzu baterantz alai.**
Mari Joxe Azurtza101
2. saria: **Zain, zure zain.** Aroa Elortza111

BERTSOA

1. taldea:

- Saria: **Bergarako famatuak.** Haritz Bilbao, Nahia Alberdi, Mara Aranes,
Ibai Rodrigo119
- Saria: **Pelikulen asmakizunak.** Aranzadi ikastolako LH-6ko ikasleak123

2. taldea:

1. saria: **Gazteria.** Iñaki Aldazabal127

3. taldea:

- Saria: **Harremanetan ere kilometro zero.** Garikoitz Lopez de Munain.....131
- Saria: **Bergarako euskararen erabilerari jarriak.** Ainhoa Pardina135

KOMIKIA

1. taldea:

- Saria: **Nota txarrak!** Oier Lete139
- Saria: **Google maps eta gazteluaren aurkikuntza.** Iker Lopez eta Lierni
Hernandez.....141
- Saria: **Elhuyar anaiak.** June de la Torre.....143
- Saria: **Erlojuaren sorrera.** Nagore Abad eta Nahia Lopez147

2. taldea:

1. saria: **Fortnite.** Malen Etxaniz, Raquueb Ullah149
2. saria: **Txokolatea eta bere ondorioak.** Maryam Aglyf151

Koldo Eleizalde lehiaketaren XXXIV. emaitza duzu eskuartean: ipuin, komiki, poema... Bergararrek beste behin erakutsi dute ez daudela sormen faltan, eta euskarazko literatura gosez jarraitzen dutela.

Ume, gazte eta heldu, lehiaketan parte hartu duten sortzaile guztiei eskerrak eman nahi nieke. Baita saridunak zoriondu ere.

Liburu honetan, ordea, ez daude saria lortu duten obra guztiak. Ikus-entzunezko generoetako lanak www.bergarakoeuskara.eus webgunean aurki ditzakezue, ipuin-kontaktak eta antzerkiak, esaterako.

Gure-gurea den hizkuntzari eta literaturari bultzadaxoa emateko, onena bertan murgiltzea dela diote. Sar zaitezte, beraz, bergarar sortzaileek hitzez osatutako mundu txiki horietan, eta goza ezazue.

Ekaitz Aranberri

Euskara batzordeburua

IPUINA

*Elurretako
panpina*



*Ane Molinero
Lehenengo taldea
Saria*

Batzenzaga 19

Elurretako panpina

Bazen behin herri txiki bat mendi tontor batean zegoena. Arratsalde hartan hotz handia egiten zuen eta tximiniatik ke asko irteten zen. Gauean ere hotz handia egin zuen.

Hurrengo goizean, esnatu zirenean, leihoak zabaldu eta dena txuri-txuri zegoen. Umeek ezin izan zuten ikastolara joan eta gurasoek ezin izan zuten joan lanera.

Orduan, elurretako panpina bat egin zuten denen artean. Batek azenarioa ekarri zuen bere etxetik. Beste batek begiak eta ahoa egiteko harriak ekarri zituen eta beste batzuk makilak aurkitu zituzten besoak egiteko. Oso polita geratu zen!

Oso ondo pasa zuten denek batera jolasten, baina berriz gaua iritsi zen eta denak etxera joan ziren.

Aurreko gauean baino hotz handiagoa egin zuen eta hurrengo goiza heldu zenean, berriz leihoak zabaldu, eta susto handia hartu zuten! Alde guztietara begiratu eta begiratu, baina elurretako panpina ez zegoen egin zuten lekuan!

Azkar jantzi ziren, kanpora irten eta panpinaren bila joateko.

Arrasto txiki batzuk zeuden elur gainean eta umeak, arrastoak jarraituz, zuhaitz batera heldu ziren eta a zer sorpresa! Elurretako panpina aurkitu zuten eta bizirik zegoela konturatu ziren.

Eta denek batera harrapaketetan jolastu zuten elurretako panpinarekin.

IPUINA

Izar balea



Carla Beitia
Lehenengo taldea
Saria

Batenzina 19

Izar balea



dako egun zoragarri batean, bazen Izar izeneko bale bat. Izar oso zoriontsua zen Kantauri itsasoan, Aitor eta Julen arrantzaleak heldu ziren arte.

Aitor zaborra botatzen hasi zen itsasontzitik eta Izar asko haserretu zen bere etxea hondatzen ari zirelako.

Izarrek, hori ikustean, laguntza bila joatea erabaki zuen. Itsasoko lagun guztiak gerturatu ziren Izarri laguntzera.


Denen artean zaborra bildu eta itsasontzira bota zuten. Arrantzaleak, hori ikustean, naturari egiten ari ziren minaz jabetu ziren.

Egun horretatik aurrera natura zainduko zutela esan zieten itsasoko animalia guztiei eta, horrela, denak zoriontsu bizi izan ziren.

“Zaindu ditzagun gure itsasoak denon artean”

IPUINA

*Txoriak ez dira
gureak*



Ekia Mendieta
Lehenengo taldea
Saria

Batzenaga 19

Txoriak ez dira gureak

Bazen behin neskatile bat Onintza izena zuena. Txoriak ikaragarri gustatzen zitzaizkion. Goizero-goizero, ogi apur bat edo beste uzten zuen txoriek jateko.

Gero, txoriei begira geratzen zen eta, ondoren, ikastolarako bidea jarraitzen zuen. Bere lagun Mariarekin topo egin eta gertatukoa kontatzen zion. Mariak, berriz, bere istorio barragarrietako bat kontatzen zion. Biei oso motza egiten zitzaaien ikastolarako bidea.

Baina, egun batean, Onintza, beti bezala, ogia utzi eta kalera jaitsi zen eta ez zegoen txoririk. Triste jarraitu zuen bidea eta gero bere lagun Mariarekin elkartu zen. Maria berehala konturatu zen Onintza triste zegoela eta galdetu zion:

—Zer gertatzen zaizu?

Onintzak negar-zotinka erantzun zion:

—Gaur ez da etorri txoririk etxera.

Gelara iritsi zenean, bere mahaira joan zen eta bertan eseri zen begiak gorri-gorri zituela. Maria ere arduratuta zegoen. Berari tximeletak gustatzen zitzaizkion eta tximeletak ere desagertzen ari ziren. Bi lagunek begiak gorri-gorri zituzten eta komunera joan ziren begiak urarekin bustitzera.

Gero, gelara itzuli eta beraien tokietan eseri ziren. Ia berandu iritsi ziren. Iritsi zirenerako Koro andereñoa gelara sartzeko zorian zegoen. Beraien andereñoak ez zien gelara berandu iristen uzten. Gero, matematikako liburua atera eta lanean hasi ziren. Ondoren, ingelesa tokatzen zitzaaien eta asko gustatzen zitzaaien arren, ez zien poz handirik eman.

Txirrinak jo zuen, baina Onintzak eta Mariak ez zeukaten ezertan jolasteko gogorik. Jolas-orduaren ondoren “Orain Txanela egingo dugu” esan zien irakasleak. Txanela egin zuten eta bazkaltzera joan ziren.

Etxera iritsitakoan han zegoen ama. Berehala igarri zion triste zegoela eta galdetu zion:

—Zer gertatzen zaizu?

—Txoriak falta dira.

Amak erantzun zion:

—Lasai! Txoririk ez dago negua delako! Leku beroago batera joan dira.

Onintza ez zen oso konforme geratu, baina balio izan zion lasaitzeko.

Hala bazan eta ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila herriko plazan.

IPUINA

Lehoi hagingabea



Unai Anduaga
Bigarren taldea
Saria

Batzenzaga 19

Lehoi hagingabea



urruti-urrutiko lurralde batean, lehoi hagingabea bizi zen. Haginik ez zuenez ezin zuen haragirik jan eta belarjalea zen.

Haragirik jaten ez zuenez oihaneko animalia gehienak bere lagunak ziren, lehoiak izan ezik.

Lehoiek barre egiten zioten lehoi hagingabeari eta mina sentitzen zuen bihotzean.

Ekaitza egon zen eta ur handiak egon ziren. Ur handiekin batera bakterioak eta horrelako asko nahastu ziren eta lehoiak, ura edan zutenean, gaixotu egin ziren eta haginak jausten hasi zitzaizkien.

Lehoiei haginak jausi zitzaizkienez ezin zuten haragirik jan. Gainera, ez zeudenez ohituta belarra jaten oraindik gehiago gaixotu ziren.

Orduan, lehoi bihozgabeek laguntza eta barkamena eskatu zioten lehoi hagingabeari.

Lehoi hagingabeak, bihotz onekoa zenez, lagundu egin zien eta belarra jaten erakutsi zien.

Lehoi bihozgabeek ikasi zuten ez zaiela desberdinei barren egin behar.

Eta geroztik, lehoi hagingabea poz-pozik bizi izan da, oihaneko bere lagunekin eta baita gainontzeko lehoiekin ere.

IPUINA

Noa, Izar eta Laida
abenturaren bila



Laida Akizu
Bigarren taldea
Saria

Batenzuya 19

Noa, Izar eta Laida abenturaren bila



z dakit noiz baina, egun batean, Noa, Izar eta Laida, hau da, LH4ko neska alai-
nak ikastolatik alai zebiltzan.

Arratsalde partean irteteko geratu ziren. Orduan Laidak galdetu zuen:

—Zergatik ez gara abentura bila joaten?

—Bai!!!! —erantzun zioten Noak eta Izarrek.

Han joan ziren hirurak basoalderantz.

Bertan zeudela euritako bat aurkitu zuten eta bat-batean euri zaparrada hasi zen.
Orduan, Noak esan zuen:

—Zabaldur euritakoa eta azpian sartuko gara ez bustitzeko!

Baina, euritakoa hegan hasi zen eta gure hiru lagunak, euritakoarekin batera, zeruan
barrena joan ziren.

Ordu batzuk geroago, euritakoa jostailuen herrian lurreratu zen.

—Ze polita den! Eta gure herritik oso gertu dago! —esan zuen Izarrek orduan.

—Jostailu-denda asko daude! —esan zien Noak.

Eta Laiak, berriz:

—Begira! Hemengo jendea txiki-txikia da! Han gnomo bat dago! Eta han, beste al-
dekoa, Alizia da!

Eta bat-batean gnomo batek galdetu zien:

—Hemengoak zarete? Nola duzue izena?

—Ez, ez gara hemengoak. Ni Izar naiz eta hauek nire lagunak dira, Noa eta Laida. Lagunak egin ziren eta gnomoak esan zien:

—Aizue! Nire herria ikusi nahi duzue?

—Jakina baietz! —erantzun zuten Izarrek, Noak eta Laidak.

—Ongi da, baina txikitu egingo zaituztet. Alaza, malaza, bibidibabidibu!!

—Hara! Txikitu egin gara —esan zuen Laidak.

—Egia da! —esan zuen Izarrek— Oso txikiak gara!

Gnomoak esan zien:

—Begira! Hor jostailu-dendak daude eta, beste aldean, etxeak.

Orduan, Noak galdetu zion:

—Nola duzu izena? Eta non dago zure etxea?

—Puntatxo dut izena eta etxetxo gorri horretan bizi naiz.

Izarrek esan zion orduan:

—Zuk zure herria erakutsi diguzu. Orain, guk geurea erakutsiko dizugu. Goazen basorantz!

Aterkia hartu zuten eta ordu batzuk geroago beraien herrian zeuden. Puntatxok galdetu zien:

—Nola du izena zuen herriak?

—Bergara —erantzun zion Laidak.

—Ba, zein handia den! —esan zion Puntatxok.

—Puntatxo, zuretzat hemen dena handia izango da! —esan zion Noak.

Eta, bat-batean, brrrrrrrrn! Kotxe batek Puntatxo harrapatu zuen.

—O, ez!!! Puntatxo!!! —garrasi egin zuen Izarrek.

—Puntatxo, zer egin behar dugu zu berpizteko? —galdetu zion Noak.

—Nire herriko lekurik aberatsenera eraman beharko nauzue —esan zion Puntatxok.

—Ongi da —esan zuen Laidak—. Goazen jostailuen herrira.

Jostailuen herrira joan ziren eta Aliziari galdetu zioten:

—Zer da herriko gauzarik baliotsuena?

—Hango zuhaitza —erantzun zien Aliziak.

Zuhaitz azpian ipini zuten Puntatxo, zerbaitek dir-dir egin zuen, eta Puntatxo berpiztu egin zen!!!

Eta bueltan Bergarara zetoze la zorro bat aurkitu zuten. Zorroa zabaldu eta Bergaran zeuden, zorroa itxi eta jostailuen herrian...

Eta betirako lagunak izan ziren.

IPUINA

*Sagarrondo
magikoa*



*Naia Agirrebeña
Bigarren taldea
Saria*

Batzenzuya 19

Sagarrondo magikoa

ntxorta mendian, zelaiaren erdialdean, bazen sagarrondo bat. Urte asko zeraman leku berean eta urtero-urtero sagar mordo bat ematen zituen.

Bertara gerturatzen ziren umeak sagarrak jan eta jan ibiltzen ziren. Egun batean, konturatu ziren, sagarrak jan eta pentsatzen zuten bitartean, beraien ametsak bete egiten zirela: magia egiten zuten, hegan egiteko gai ziren...

Baina, negua heldu zen, eta sagarrondoak ez zuenez sagarrik ematen, umeak triste jarri ziren.

Umeak itxaron eta itxaron egin zuten udazkena heldu arte. Udazkena heldu zen eta umeek sagarrak jaten jarraitu zuten.

Hala ere, heldu zen garai bat, kutsadurarengatik zuhaitza usteldu egin zena eta ez zuen sagar gehiago eman.

Halako batean, ezustean, umeek sagar bat aurkitu zuten lurrian.

Ume baten ametsa zuhaitza berpiztea zenez, sagarra jan zuen. Sagarra jan ondoren, bere ametsa egi bihurtu zen, eta sagarrondoa berpiztu egin zen.

Egun hartatik aurrera, herria gutxiago kutsatu zuten sagarrondoa berriz ez usteltzeko, eta umeak oso pozik bizi izan ziren.

A hand-drawn illustration of a frog with a green head, yellow body, and orange-red limbs, perched on a thick green vine. The frog is facing right, with its mouth slightly open. The background is a textured, mottled green and grey.

IPUINA

*Mutikoa
eta txoria*

*Mariñe Sotil
Bigarren taldea
Saria*

Batzenzaga 19

Mutikoa eta txoria



azen behin Petrof izeneko mutiko bat, 9 urte zituen eta Kolonbiatik etorri zena bera familiarekin.

Euskal Herriko herri txiki batean bizitzen jarri ziren eta Petrof bertako ikastolara joaten zen goizero.

Mutikoa ezberdina zen. Ez zitzaion gustatzen kirola egitea, eta euskaraz ez zenez ondo mintzatzen, beste mutikoen txantxak ez zituen ulertzen. Hori dela eta, Petrof bakarrik egoten zen ordu askotan.

Goizetan jaikitzen zenean, bere gurasoak azkar joaten zirenez lanera, bakarrik gosalitzen zuen eta ondoren, Ricky izeneko txakur bat paseatzera ateratzen zuen.

Egunero, ibilaldi berdina egiten zuen, eta Ricky beti joaten zen zuhaitz berera, bere gauzak egitera.

Egun batean, Petrof konturatu zen zuhaitz horretan txoritxo bat egoten zela euren zain. Bere burua lasaitu zuenean entzun zuen lehengo aldiz txoriaren kanta.

—Nola izan daiteke hau? Egunero etortzen gara bertara eta gaur izan da kantua entzun dudana lehenengo aldia. Zoragarria da!!!

Hurrengo egunean txoritxoa zuhaitz berean zegoen. Kantuan hasi zenean beste bi txori hurbildu ziren.

—Abestu dezaket zuekin, mesedez? —Eta txoriek baietz esan zioten.

Egunak pasatu zituzten gauza bera egiten.

Arratsalde batean, Petrofek, etxera heldu zenean esan zien gurasoei:

—Aita, ama! Badakit zer izan nahi dudan. Aurkitu dut nire bizipoza!

—Zertaz ari zara? —galdetu zion amak.

—Abeslaria izan nahi dut. Musika eta kantua asko gustatzen zaizkidala konturatu naiz.

Gurasoek elkar besarkatu eta esan zioten:

—Noski baiez Petrof! Denok gara berdinak eta norberaren bidea aurkitzea oso garrantzitsua da .

20 urte pasatu dira hori guztia gertatu zenetik. Gaur egun, Youtuben sartzen bazara jarri Petrof izena, eta gozatu, gozatu, gozatu...

IPUINA

*"Kaialde ikastola" -
Komuneko paper
ausartek salbatua*



*June Kalboetxeaga
Hirugarren taldea
Saria*

Batzenzaga 19

*"Kaialde ikastola" – Komuneko paper
ausartek salbatua
2019-04-03*

Berezia zen benetan herriko kaiaren alboan zegoen herriko ikastola bakarra, horregatik deitzen zen "Kaialde ikastola". Baina, ez zen berezia bertara ikastera joaten ziren haurregatik, baizik eta eskola barruan zeuden objektuak oso bereziak zirelako. Eskolako ateak hurrengo egunera arte ixten ziren momentuan, bertako objektuak piztu egiten ziren, hau da, benetako bizidunak edo pertsonak zirela ematen zuten.

Gelako arbelek, klarionek, aulkiek, paperontziek, apalek, liburuek, munduko mapak, argiek, leihoek... denek hitz egiten zuten elkarrekin, eta gelan, egunean zehar gertatutako gauzak aipatzen zituzten.

Baina, leku guztietan bezala, baziren euren artean hobeto tratatuak sentitzen zirenak, hau da, kategoria gehiago zutela uste zutenak eta baita kategoria gutxiagokoak eta baztertuak sentitzen zirenak ere.

Arbela eta klariona, adibidez, oso garrantzitsuak eta bereziak sentitzen ziren, beraien hitzetan, eurak gabe haurrek ez zutelako ezer ikasiko, irakasleak ezingo baitzuen ezer azaldu guztiek ikas zezaten. Antzera hitz egiten zuten boligrafo, arkatx eta koadernoek ere. Eta aulkiak eta mahaia ere oso inportanteak sentitzen ziren haiek gabe haurrak asko nekatuko zirelako eta, beraz, eskolara joaterik nahiko ez zutelako! Liburuek ere bazuten pisua eskolan, haien barnean gordeta zegoelako ikasi beharreko guztia.

Baina, zeintzuk ziren kategoria gutxi zutenak eta baztertuak? Argi eta garbi, komuneko paper guztiak!

Guztiek barre egiten zieten eta sekulako irainak entzuten zituzten: “Ez duzue ipurdia garbitzeko besterik balio”, “Beti besteen zikinkeriaz inguraturik bizi zarete”, “Hingugarria da zuen bizitza”...

Beraz, oso tristea zen hauen bizitza, baina aurrera egitea besterik ez zuten.

Egun batean, klase egun arrunt bat zen, eta haurrak lanean ari ziren egunero bezala. Bat-batean, sekulako zarata entzun zuten, eta gelako eskuinaldeko horman zulo erraldoi bat ireki zen eta bertatik itsasontzi baten muturra azaldu zen. Segidan, egindako zuloatik sekulako ur piloa sartzen hasi zen.

Denak garrasika hasi ziren eta ez zuten irtenbiderik aurkitzen. Baina, berehala, komuneko papertxo guztiak elkartu eta izugarrizko ideia izan zuten: bata bestearen gainean jarri, eta guztien artean zuloa inguratu eta ura xurgatzen joan ziren, hau da, txandaka, batzuk erabat bustitzen zirenean, besteak jartzen ziren eta horrela jarraitu zuten, suhiltzaileak etorri eta istripuari irtenbidea eman arte.

Hurrengo eguna benetako egun berezia izan zen. Guztiak komuneko paperak go-raipatzen hasi ziren, eta hauek ezin zituzten sinetsi entzuten zituzten zorion eta eskerak.

Handik aurrera oso pozik bizi izan ziren eta kategoria eta garrantzia handiko objektu bihurtu ziren eskolan. Eta eskolako izena agertzen zen kartelean, beraien omenez, bigarren esaldi bat gehitzea erabaki zuten:

“KAIALDE IKASTOLA”

KOMUNeko PAPER AUSARTEK SALBATUA

IPUINA

Ostadarra



Maite Errasti

Hirugarren taldea

Saria

Batzenzuga 19

Ostadarra

Baziren behin zazpi kolore eraikitzaile: Horia, Laranja, Gorria, Berdea, Urdin argia, Urdin iluna eta Morea.

Koloreek, eraikitzen zuten guztia batera egiten zuten: koloretako etxeak, hegazkinak, eserlekuak... Gehienetan, gauza antzerakoak egiten zituzten.

Egun batean, Moreak, asperturik, gauza ezberdin bat eraikitzea edo egitea proposatu zuen.

Beste koloreei ideia oso ona zela iruditu zitzaaien, baina ez zekiten zer egin. Orduak, egunak, asteak... pasatu ziren, eta ez zitzaaien ezer interesgarriarik bururatzen.

—Eta zergatik ez dugu itsasontzi bat egiten? —proposatu zuen Berdeak.

—Eta jertse bat? —esan zuen Horiak.

Zoritarrez, gauza horiek guztiak eginak zituzten iraganean.

Halako batean, Laranjak zubi bat egitea proposatu zuen, baina ez zubi normal bat, erreka baten gainean egoten direnak bezalakoa, baizik eta zeruan!

—Zelako ideia ona! —esan zuten denek batera.

Koloreak prest zeuden zerura arte salto egiteko. Baina, bat-batean, Gorriak beraien asmakizunari zer izen ipiniko zioten galdetu zuen.

—Ostadarra! Begira, gutako bakoitza hostoak bezala gara eta denon artean adar bat osatzen dugu. Zer iruditzen zaizue? —galdetu zuen Moreak.

—Hori da! —erantzun zuten besteek.



Izena erabakita zutela, salto erraldoi bat eginez, zerura heldu ziren. Bertan, denen artean koloretako zubia eraiki zuten.

Geroago, bi urdinek, eguzkia eta euria momentu berean zeudenean agertzea proposatu zuten. Denak ados azaldu ziren esandakoarekin.

Gaur egun ere, eguzkia eta euria elkartzean, ostadarra agertzen da eta egunak politagoak dira.

IPUINA

*Bete daitekeen
ametsa*



*Oier Lete
Hirugarren taldea
Saria*

Batenzina 19

Bete daitekeen ametsa



xakurrak eskuineko hegoa apurtu zidan. Izugarrizko mina nuen eta eskerrak ez zidan min gehiago egin, bestela hilda egongo nintzatekeelako.

Uda zen eta nire herrian nengoen nire lagun usoekin. Nire amak lepoko berri bat oparitu zidan eta oso zoriontsu nintzen. Nire anaiarekin jolasten nenbilen eta esan nion:

—Ezetz hegan zeharkatu gizakien herria!

—Baitez! Nik egiten badut, ondoren zuk, ados?

—Ez dakit ba. Zahartuta nago eta zu oso gaztea zara!

—Kakatia!

—Kakatia? Ondo da. Egingo dut, baina zuk lehenago.

—Bale! Banoa ba. Agur!

Eta bueltatu zenean esan zidan:

—Listo! Orain zure txanda da.

—Bale ba! Oraintxe arte!

Momentu horretan seguru nengoen gizakien herria hegan zeharkatzea lortuko nuela, baina... gizakien herriaren erditik nindoala lepokoa erori zitzaidan etxe bateko lorategira.

Lepokoaren bila joan nintzen eta txakur bat ikusi nuen lo. Isil-isilik gerturatu nintzen eta lepokoa hartu nuen, baina... estropezu egin nuen txakurraren jostailu batekin eta esnatu egin zen.

Eskuineko hegoan jo ninduen txakurrak eta odoletan hasi nintzen. Nire lepokoa berreskuratu nahi nuenez, berriz joan nintzen lepokoa hartzera. Berriz ere eskuineko hegoan jo ninduen eta oraingoan hegoa apurtu zidan!

Nire habiara itzuli nahi nuen, baina ezin nuen. Nire habia mendian zegoen eta, hegoa horrela izanda, egunak beharko nituen itzultzeko. Herriko kaleetan zehar ibili nintzen, baina ez nuen inor aurkitu eta lurrian erorita gelditu nintzen. Neska batek aurkitu ninduen eta esan zidan:

—Zaurituta dirudizu. Albaitariarengana eramango zaitut.

Albaitariarengana eramane ninduen eta hegoa osatu zidan. Oraindik ezin nuen hegane egin eta neskatilak bere etxera eramane ninduen astebete pasatzera.

Bere etxera heldu eta... Txakur bat zuen! Ihes egiten saiatu nintzen baina, ezin izan nuen, atea eta leihoak itxita zituelako. Mahai gainean utzi ninduen eta erosketak egitera joan zen Naroa.

Txakurrak beldur handia ematen zidan, baina ez zen mahai gainera heltzen.

Erosketak egitetik bueltatu zen, mahai gainean janaria utzi zidan eta lanera joan zen.

Halako batean, txakurra mahai gainera igo zen eta ni oso urduri jarri nintzen. Baina, ez zidan ezer egin, nirekin jolasten egon zen eta oso ondo pasatu genuen.

Hegoa osatu zitzaidanean agur esateko ordua iritsi zen. Naroak, etxera heldu zenean, bendajea kendu zidan, leihoa ireki zuen eta hegane joan nintzen.

Nire habiara iritsi nintzenean denak harrituta gelditu ziren bizirik nengoela ikustean. Aste oso bat pertsonen herrian pasatu nuelako eta gure herrian horrelako zerbait egitea ezinezkoa zela esaten zutelako. Baina, nik lortu nuen.

Nire familiakoei istorioa kontatu nien eta aho zabalik gelditu ziren. Amari lepokoa eman nion ez nuelako berriz galtzerik nahi, baina amak itzuli egin zidan eta esan zidan:

—Ez, Muso, ez. Hau zurea da. Lepokoa berreskuratzen saiatu zara, zure bizia jokat duzu lepokoarengatik, beraz, zurea da.

Momentu horretan oso pozik sentitu nintzen, arduratsua nintzela pentsatu nuelako baina, hurrengo egunean, berriz galdu nuen lepokoa eta ez nuen aurkitu. Amari esan nion:

—Barkatu ama, baina lepokoa galdu dut. Berreskuratzen saiatu naiz, baina ez dut lortu. Benetan asko sentitzen dudala, badakidalako zuretzat lepokoa oso garrantzitsua dela. Barkatuko didazu?


—Muso, lepokoa oso garrantzitsua zen niretzat, baina zu askoz garrantzitsuagoa zara, eta noski barkatzen dizudala. Nola ez dizut ba barkatuko?

—Eskerrik asko ama! Baina, ez dut beste lepokorik nahi, bale?

—Ondo da, lepokorik ez.

IPUINA

*Leialtasunaren
iturria*



*Ariane Igartua
Hirugarren taldea
Saria*

Batenzina 19

Leialtasunaren iturria

Bazen behin Toby izeneko txakurkume bat, azukre-kotoia bezain ile leuna zuena, begi marroiak zituen eta elurra bezain zuria zena. Tobyri asko gustatzen zitzaion dibertsioa, ezin zen minutu bat bera ere geldirik egon.

Tobyri asko gustatzen zitzaion jolastea, baina bakarrik jolastea ez, baizik eta lagunekin jolastea. Bere ametsa familia bat edukitzea zen. Jolasteko, elkarrekin egoteko, konpainia edukitzeko...

Tobyk, kale-txakurra izan arren, sentimenduak zituen. Arratsalde batean, Aitor izeneko mutiko bat Tobyrengana hurbildu zen. Aitorrek begi urdinak zituen eta ile marroia. Mutiko alaia eta dibertigarria zen eta oso bihotz onekoa.

Aitorrek suabe-suabe laztandu zuen eta esan zion:

—Lasai, txakurtxo! Nirekin etorriko zara etxera.

Mutikoaren etxera iritsi zirenean, mutikoak gurasoei galdetu zien:

—Ama, aita, txakurkume bat eduki genezake? Kalean aurkitu dut eta ez badu inork hartzen hotzez eta gosez hilko da. Gainera, txakurkume batek norbait behar du ondoan bera maitatzeko, berarekin jolasteko...

Gurasoek erantzun zioten:

—Horrela badiozu utziko dizugu, baina zure ardura izango da txakurra zaintzea. Gogoratu zure anaia txikia izango balitz bezala tratatu behar duzula.

Momentu horretan mutikoak esan zuen:

—Eskerrik asko nigan konfiantza izategatik! Maite zaituztet!

Mutikoa poz-pozik bere gelara igo zen Tobyrekin. Mutikoak ez zekien txakurtxoak nola zuen izena, ezta txakurtxo horrek sekretu bat zuenik ere. Txakurkumea ez zen beste txakur batzuk bezalakoa, Toby txakur berezia zen.

Tobyren sekretua hitz egiten zekiela zen eta, orduan, Tobyk esan zion mutikoari lagunek Toby deitzen ziotela.

Tobyk bere sekretua gordetzeko eskatu zion mutikoari eta mutikoak gorde egin zuen.

Hortik aurrera, Toby eta mutikoa betirako lagunik hoberenak izan ziren. Garrantzitsuena izan zen Tobyk familia bat lortu zuela eta, gainera, bere gustukoa.

Mutikoak maitasun handiz zaindu zuen Toby. Konturatu zen animaliak eta gizakiek maitasun bera eta tratu bera behar zutela.

Tobyren sekretua oso ongi gordea izan zen mutikoaren leialtasunari esker.

Hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta ez dadila atera sekretu plazan.

IPUINA

Bihotz izoztuari



June Odriozola
Laugarren taldea
1. saria

Batenzina 19

Bihotz izoztuari

Zutaz oroitzen naiz,
 Gau izartsu bakoitzean
 Zure begien urdina oroitzean,
 Baita gure arteko berotasuna ez sumatzean.

Berriz ere, urtero bezala gaurko egunez, egongelako armairu gaineko kutxa atera duzu.

Ireki eta eskutitz zimurtua atera duzu.

Malkoak begietan, irribarre keinu bat atera zaizu, hainbestetan duzu irakurria...

"Maitia, iritsi da eguna, iragarpenak dio eguraldi bikaina izango dugula.

Bihar gailurra ikusi ahal izango dut nire begiekin. Ziur naiz ez dela zu bezain ederra izango baina urte luzetako ametsa egi bihurtuko dut eta zuek hain urruti izanda ere, eguzki izpietan islatutako zuen begien distirak argituko nau.

Eta onena, laztana, laster elkarrekin izango garela berriz.

Gaur gaueko izarrek ilargia bezala, nik zure argia behar dut.

Egun hauek oso gogorrek egiten ari zaizkit, zuri idazteak soilik lasaitzen nau...

Abentura honetako egun bakoitzean bezala, bihar ere idatziko dizut, baina gailurretik... eta ez ahaztu bihotza, beti, beti, beti maiteko zaitudala, zaituztedala inork inon ezer baino gehiago."

Baina hurrengo berriak ordu txikitan eta hizkuntza arrotzez etorri ziren:

Familiares de...?

Tenemos una mala noticia...

Eta hor bihotza lehertu zitzaizun.

Oroitzen naiz haurra nintzela, besorik beso nindoan bitartean, zu negarrez, guztien besarkadak jasotzen eta eguna joan eta eguna etorri tristura hori kendu ezinik...

Baina gogoan zaitut baita postaria etortzen zenean, irrikan atea zabaltzen zenionean, irribarretsu.

Zure begien argia gutun-azal koloretsu haietako bat jasotzen zenuen bakoitzean.

Orain esku artean duzun hori adibidez.

"Gabon laztana, hotz ikaragarria egiten du baina bagoaz aurrera.

Gaur mendian gora orduak eta orduak igaro ondoren paisaia zoragarriak ikusi ditugu.

Badakit askok ez dutela ulertuko nola izan naizen gai alaba txikia eta zu milaka kilometrora utzi eta lurralde honetaraino etortzeko. Baina munduko mendirik altuenak badauka bere xarma, ez naiz damutzen eta ez naiz inoiz damutuko, natura zu bezain zoragarria da eta.

Goizeko egunsentiak zure esku leunek bezala laztantzen nau.

Elurraren zuritasunak zure irribarre goxoa dakarkit.

Gaueko izarren distirak zure hitzen alaitasuna gogorarazten dit."

Eta bai, naturarekiko maitasun neurri gabe hori bihotzeraino sartu zenidan.

Bizitza eman zidana kendu arren, zorigaitzeko istripu hark ez zidan gorrotorik sortu, alderantziz, beharbada bera han dagoelako maite dut hainbeste mendia.

Eta zuri aita, zer eman eta zer kendu dizu mendiak?

Hainbeste maite zenuena eramatea zela gainditu duzu?

Eta zure esku latzekin beste eskutitz zahartu bat atera duzu kutxatik, eta berriz ere irakurtzeari ekin diozu.

"Kaixo maitia, berriz ere hemen nago, dendako ertz honetan zurekin.

Gaurkoa ere egun zoragarri bat, ez arazorik gabea, baina beste tarte bat aurrera bidean.

Zer moduz zaudete, nola dago txikia?

Ziur nago harribitxi bat bezala zainduko duzula, imajinatzen zaituztet biok jolasean nire argazki bat inguruan dela, zoriontsu.

Irrikan nago zuek ikusteko, berriz elkarrekin egoteko.”

Istripu hark eraman zigun gehien maite genuena, ez genuen izan astirik gaueko izarrei begira egoteko, elkar besarkatzeko. Baina zenbat aldiz, zu eta biok estu-estu besarkatuta, izartxoei begira berarekin bagina bezala sentitu garen...

Aita, ohe azpiko munstroen aurka borrokatu zenuen berbera.

Nire lehen pausoak ematen irakatsi zenidana.

Aita, negu gorriko beroki epela, ahul nagoeneko indarra.

Aita, gutxitan maite zaitut esan arren, egunez egun irakatsi didazuna, irri, borroka eta malko bakoitzean.

Hutsa izanda eta barrua lehertuta izan arren zeruko izar guztiak jaitsi dizkidazuna.

Egunez egun, bera erori eta gero ere, jasotako eskutitz horietako hitzek zenbat lagundu dizuten aldapan gora egiten.

Bai aita, entzuidazu, ez daukat hitzik zuri eskerrak emateko, maite zaitudan guztia erakusteko. Eta gure buruari opari bat egin behar diogu, amak amaitu gabe utzi zuena amaitu egin behar dugu.

Hango elurperen batean dagoen bihotz izoztu hura sentitu, urtzeraino goxatu, gertu.

Tontorra zapaldu eta berak sentitu ezin izan zuena sentitu.

Tira aita, utzi kutxa bere tokian; zain ditugu lagunak behean eta hegazkinak ez digu itxarongo. Emaidazu eskua eta goazen, izarrak ikusi nahi ditut berriro zure begietan

—Gaua beti argi—

IPUINA

*Sufrimenduak
irabazten du*



*Maidier
Iribecampos
Laugarren taldea
2. saria*

Batenzuya 19

Sufrimenduak irabazten du

Dagoeneko arratsaldeko zortziak dira, nire logelaren erdian jesarrita nago, zalantzez betea, ez dakit zertan pentsatu edo zeri pentsatzeari utzi. Badakit gaztea naizela eta gazteriarren txorakerietan barnerratu naizela; alkohola, drogak... baina horrek ez du esan nahi pentsatzeari uzten diodala, izan ere, nire burmuinean ez da inoiz hori geratuko.

Nire logela handia eta aldi berean txikia, 14 urte neraman pareta kolore zuriarekin, baina zertarako nahi nuen logela handiagoa ikustea? Ez du axola; horregatik duela hilabete bat margotu nuen logela beltz matez "ordua zen!".

Beltza izatean iluntasuna transmititzen dit eta pentsatzea eragiten dit, eta inoiz pentsatu ez ditudan pentsamenduak etortzen zaizkit burura. Dagoeneko logela guztia begiratu dut alderik alde, baina ez naiz inoiz aspertzen begiratzeaz. Buruan ditudan pentsamenduek logela osoa zalantzez betetzen dute. Logura naiz, baina aldi berean ez dut lotara joan nahi. Bat-batean, etxeko lanak ditudala konturatu naiz, salto batez lurzorutik altxatu eta ikasmahaira noa. Heldu orduko lanean hasten naiz, baina konturatu gabe lo hartu dut. Amets batean sartu naiz, baina beltza besterik ez dut ikusten, iluntasuna, argirik gabe, iluntasuna besterik ez. Basoan bakarrik nago, galdurik, ez dut inor ikusten, beldur naiz, esnatu nahi dut, baina ezin dut, bat-batean norbait ikusten dut. Nor da? Mina egingo al dit? Zer nahi du? Mutila al da? Edo agian bortxatuko nau? Ez, Mainer, ez! Zergatik naiz beldur, zergatik uste dut min egingo didala, nahiz eta ametsa izan

ametsean askea izan nahi dut eta ez ausarta. Berdin zait besteez esaten dutena, nik aske izan nahi dut eta ez dut nahi mutilek egin ahal didatenaz beldur izan. Nik ere gauza bera egin ahal diet.

Bat-batean amak ustekabeaz esnatu nau, dirudienez haserre dago eta ez dakit zergatik, dagoeneko lo egin nahi dut eta orain izan dudana ametsaren barrena murgildu.

—Maiderrrr! Arratsalde osoa egon zara *After* liburua irakurtzen eta azkenengo momenturako utzi dituzu etxeko lanak? —egin dit garrasi amak.

—Ezzz ama. Oraintxe bertan konturatu naiz etxeko lanak nituela, ez nintzen gogoratzen; bestela, zuk badakizu ez ditudala gauzak azkenengo momenturako uzten —erantzun diot.

—Ongi da. Zatoz afaltzera, ordua da eta! —esan dit.

Pentsatu gabe zutitu, etxeko pijama jantzi dut eta sukaldara abiatu naiz. Bidean nola, etxeko zapatilaren punta eskailera-mailetan kateatu eta hankaz gora jauzi naiz. Hau bai kaskarrekoa!

—Maider? Ondo al zaude? —galdetu dit amak.

—Bai ama, estropezu txiki bat besterik ez da izan —erantzun diot.

Afaldu ondoren, nire logelara igotzean, eskailera-mailari ostikoa ematea pentsatu dut izugarritzko mina hartu dudalako, baina jotzean mina handiagoa da. Pentsatu gabe logelara iritsi naiz ia negarrez, pentsatzen jarrita bi urteko ume mukitsu bat ematen dut, edozer gauzazatik negarka.

Txabusina kendu eta ohera sartzen naiz eta konturatu orduko lo hartu dut. Berriz ere arratsaldeko amets berdinean sartu naiz, baina oraingo honetan ilunean ikusten zen pertsonaren aurpegia ezaguna egiten zait. Nor da? Bigarren aldiz begiratzen dudanean ia nire parean dago, badakit nor den, baina izututa ohean bertan salto egiten dut. Nire aurrean dagoen pertsona nire idoloa da, zehatz-mehatz Hardin da, bai, hura da *After*-eko protagonista. Gehiegi maite dut. Ametsera bueltatzean hizketan ari zait:

—Kaixo! Ni Hardin naiz. Ezagutzen al nauzu? —galdetzen dit.

Hitz egin didala soilik pentsatzean burua jausten zait. Harrituta nago nire bizitzako momentu garrantzitsuenetakoa bat nire aurretik badoa ezer esan edo egin gabe. Ezin diot horrela joaten utzi, gehiago ezagutu behar dut.

—Eeee, Hardinnnn! Lehen ez naiz aurkeztu. Ni Maider naiz, zure fan “number one”. Ikaragarri gustuko zaitut eta gehiago ezagutzea gustatuko litzaidake; izan ere, ez da egunero aukera hau izaten —esaten diot oso urduri.

—Pozten naiz zu ezagutzeaz, baina zer jakin nahi duzu nitaz? —galdetzen dit harrituta.

Galdera haren erantzuna oso zabala da, infinituraino eta buelta egin dezaket. Nola nahi du galdera hau erantzutea bere bizitza osoa nahi badut niretzako? Beno, egia esan liburuko bizitza nahi dut; izan ere, ez dakit nolakoa den bere egunerokotasuna. Ahoa zabaltzen ari naizela hau esaten dit:

—Beno, ba ezagutu nahi banauzu, zatoz nirekin eta nire egunerokotasuna erakutsiko dizut.

Pentsatu gabe, galdera oso zuzen bat egiten diot:

—Baina, non dago Tessa?

—Beno, bai... ni hemen atsedenean nago. Duela hilabete batzuk hasi ginen *After* pelikula grabatzen eta atsedenean pelikulako zuzendaria Tessa hartu eta harekin hitz egitera joan da —erantzun dit triste.

—Baina, hark ez du atsedetik? Edo zergatik joan da harekin hitz egitera? —galde-tzen diot.

—Ez. Kontua da filma grabatzen ari garela pertsona bakoitzak soldata bat irabaz-ten du, baina, kasu honetan, Tessak nik baino gutxiago irabazten du eta ez zaigu bi-dezkoa iruditzen, horregatik joan da zuzendariarekin hitz egitera, soldata hori nik dau-kadanaren berdina izan dadin.

Erantzun baino lehenago nire gorputza sutan dago; benetan XXI. mendean nola ja-rraitu dezakegu emakumeen ezberdintasunarekin?? Lotsagabea iruditzen zait gaur egun oraindik ere zinean emakumeen arteko ezberdintasuna txikitu beharrean handi-tzen doala.

Konturatu gabe ama nire logelan sartzen da. Dagoeneko goizeko zortziak dira eta eskolara joan beharra daukat.

—Maider maitea ikastolara joan behar zara, esnatu...—ahots leun eta fin batek.

Izugarritzko nagia ematen dit ohetik altxatzeak, baina ez dut beste erremediorik; al-txatu, arropa jantzi eta gosaltzera noa.

Motxila prestatu eta eskolara abiatzen naiz. Ez nintzen gogoratzen gaur lehenengo orduan gorputz heziketa daukadala, hau bai zorte txarra. Gimnasia abiatu eta kadenetan jolasten gara pare bat aldiz, berotu arte. Ondoren hauxe esaten digu andereñoak:

—Orain banatu zaitezte bi taldetan balukoian jolasteko, alde batetik ahulak, hau da, neskak eta, beste alde batetik, indartsuak, mutilak.

Sutan nago berriz ere, izugarri haserre eta ezin dut andereñoari erantzuteko gogoia uxatu.

—Baina zuk zer pentsatzen duzu! Ez al dakizu neskak ere indartsuak garela? Ez gara beti ahulak izango! Gainera zu neska izanda matxismoa alde batera utzi beharko zenuke eta feminismoa aurrera atera ikastetxe honetan! —egiten diot garrasi.

—Nor zara zu niri horrela hitz egiteko? Alde nire klasetik eta abiatu zaitez zuzendariaren bulegora —botatzen dit liskarra.

Haserre nago oso haserre, bizimodu honetatik alde egin nahi dut, ihes egin. Etxera heltzen naizenean amak badaki zer gertatu den irakaslearen eta nire artean, eta zigor gisa mugikorra kentzen dit aste guztirako. Negarrez ari naiz, badakit ez diodala modu onean hitz egin irakasleari, baina arrazoia dut eta ez dut hori horrela izaten onartuko. Bazkaltzen ari naizela, telebista piztu eta harrituta gelditzen naiz, Oñatiko 45 urteko gizon batek 15 urteko neska bat bortxatu du. Ez da posible! Ezin liteke! Logelara joan eta ohe gainean lo hartzen dut. Ametsetan barneratuta Hardin ikusten dut eta oraingoan baita beste norbait ere, a bai Tessa!

Negarrez dago eta Hardin hura besarkatzen ari da, baina zer gertatu zaio?

Hardinek azaldu didanez ez diote soldata berdindu nahi eta denborarik ez galtzeko zinemaldia uztea erabaki du.

Zer demontre! Eta nork egingo du bere partez protagonistaren papera? Dezepzioz beterik nago baina, guztiz ulertzen diot, nik ez dut balukoian jolastu nahi izan emakumeen berdintasuna lortzeko, beraz, egokia iruditzen zait ez badu filmean parte hartzen. Begiak zabaltzen ditudanerako arratsaldeko zazpiak dira. Denbora hau guztia haiekin pasatu dut hizketan eta gehiegi hausnartu dut. Hainbat konklusio atera ditut eta horietako bat eta niretzako asimilatzekeo zailena hauxe izan da: *After* liburu osoan zehar Hardinek Tessa manipulatu eta hari agintzen dio; ez dio nahi duena egiten uz-

ten. Nire autoestimua eta dezepzioa lurretik zehar daude, *After* liburua hartu eta su ematen diot tximinian, nahiz eta nire libururik gustukoena izan; ez dut ezberdintasun hau onartuko, ez diot matxismoari aurrera egiten utziko.

Baina zer gertatuko da orain? Dena gaizki doa: *After*, notiziak, bortxaketak... Nire logelara bueltatu eta armairu barruan sartzen naiz, iluntasunean, ez dut arnasa ere hartu nahi eta oso bakarrik sentitzen naiz, kontua da orain dela urte batzuk niri antzerako zer-bait gertatu zitzaidala eta horregatik badakit emakumeenganako errespetua hain garrantzitsua dela. Orain dela hiru bat urte, nire lagunekin arropa denda batera joan nintzenean, arropa begiratzan ari ginela, 60 bat urteko gizon bat gerturatu zitzaigun eta hauxe esan zidan: zu emakume zikin bat besterik ez zara, ez duzu ezertarako balio! Negarrez hasi nintzen, hura nire titi eta ipurdia ukitzen ari zen bitartean. Korrika irten ziren nire lagunak eta ni bakarrik geratu nintzen dendaren erdian gizon horrekin, dendako saltzaile bat nigana gerturatu zen arte. Eta eskutik helduta almazenera eraman ninduen, eta horrekin batera ertzainei deitu zien.

Ezin nuen sinistu gertatu zitzaidana, oraindik ere min hori barruan daramat eta ezin dut samin hau alde batera utzi. Gainera, ez diot hau inori kontatu, irakurtzen ari zaretanoi besterik ez.

Badakit nitaz gain badaudela beste hainbat pertsona hau sufritu dutenak, nire kasuan hau sentitzen dudana modu bakarra da, ezin duzu inoiz burutik kendu, inoiz gertatu zaizun gauzarik txarrenetako bat da eta ezin dut gertatu zen egunetik nire bularreko mina kendu, horregatik orain betiko kendu nahi dut min hori. Bukaera emango diot nire bizitzako azken momentuari, ohean etzan era arratsaldean erosi dudana "heriotza grisa" droga injektatuko dut, hau amaituz. Amaitu baino lehen hau eskatu nahi dizuet eguneroko hau irakurtzen duzuen guztioi: "LORTU EZAZUE EMAKUMEEN ASKATASUNA ETA BERDINTASUNA". Baita ere zuretzako *AFTER*eko film kuttuna, hartu ezazu kontuan emakumerik gabe film hori ez dela ezer izango.

AGUR BERO BAT AMA!

.....

—Amaiur! Zatoz bazkaltzera, hiletara joan behar gara eta! —deitzen ari da nire tia.

—Bai tia, banoa —erantzun dut negarrez

Badakit istorio honen bukaeran besterik ez naizela ageri, baina nire burua aurkeztu nahi dut, Maiderren lehengusina naiz, Amaiur. Maiderrek, gure ondotik joan baino lehen, eguneroko zati hau etxeko buzoian utzi zuen. Dagoeneko hiru aldiz irakurri dut mezua, baina ezin dut asimilatu, oso gaizki pasatzen ari naiz, Maider nire ahizpa bat bezala baitzen; laguntzeko prest, maitalea, eskuzabala, arduratsua... horregatik orain hemen nago haren egunerokoa irakurtzen, hark sufritu duena sentitzen dut eta ezin dut hau onartu. Hiletaren ondoren, harrituta gaude familiako guztiak, minez beteak, baina egin dezakedan gauza bakarra etorkizunean hark egiteko eskatu ziguna lortzen saiatzea da.

5 URTE GEROAGO

Hemen nago, martxoaren 8an, Maider hil eta bost urte geroago bere ametsa bete nahian, 18 urterekin Emakunde organizazioan hartzen dut parte eta haren ametsa BETETZEAR NAGO!


—INORK EZ DIGU ESANGO ZER EGIN, NOLA ESAAAN ETA ZER IZAAAN!
Goazen denok abestera!

Horrela espero dut denok batera arazo hau konpontzea eta denok eskubide berdinak izatea.

DENAK BATERA INDARTSUAGO GARA!

IPUINA

*Nire bizitza, nire
erabakiak*



*Ane Larrañaga
Laugarren taldea
3. saria*

Batenzina 19

Nire bizitza, nire erabakiak

 da pasa berri da eta klaseak hasteko aste batzuk besterik ez dira gelditzen. Gaur ere eskularruak hartu eta Elene garajera jaitsi da entrenatzeko asmoarekin. Entrenatzen ari dela, ama deika hasi zaio, baina ez dio jaramonik egiten, beti bezala. Halako batean, ama garajera sartu eta errieta egiten hasi da, gaur ere ez duela arropa zintzilikatu oihu eginez.

Elenek eskularruak kendu eta ezer esan gabe logelara igo da, nazkatuta baitago beti amak errieta egitearekin. Urtero, uda garaian, hainbat etxeko jarduera egitera derrihortzen du: hautsa kentzea, arropa zintzilikatzea... Bi anai-arrebetatik neska bakarra denez, berak egin behar dituela esaten dio.

Ama Eleneren logelara joan eta horrela errepikatu dio:

—Ea behingoz neska egiten zaren. Ni zure adinarekin neska puska eginda nengoen, ordurako lanean ere hasia. Lotsa eman beharko lizuke. Gainera, bisexuala, barazki-jalea... benetan arraroa zara!

Elene normalean isilik gelditzen da baina, gaurkoan, lehertu baino lehen hitz egitea erabaki du:

—Ni horrelakoa naiz, gustuko ez banauzu ez begiratu. Nik, arraroa izatearekin, ez diot inori minik ematen. Nik nire pertsonalitatea dut eta zuri ez gustatzeak ez nau ni aldaraziko. Egunen batean ulertzea espero dut.

—Ikusiko duzu aitzak bisexuala edo dena delako hori zarela jabetzean —mehatxatzen dio amak.

Elene aspertuta dago egunero gauza bera entzuteaz, beharrezko gauzak hartu eta dutxara joan da.

Afaltzeko ordua iristean, sukaldera joan eta bertan daude aita, ama eta Ekaitz, has-teko prest. Afaltzen hasi eta denak mahai inguruan eserita daudela, aitak haserre oihukatzen du:

—Nahikoa da! Zer gertatzen da zuek biokin? Zu Elene, banekien arraroa zinela, baina Ekaitz zuk huts egin didazu. Nolatan dantza egitea gustuko duzula? Utzi txo-rakeriak eta egin zaitetz gizon behingoz!

Ekaitzek begirada zorrotzarekin begiratuz esaten dio:

—Ez zaitut aguantatzen! Bai dantza egitea gustuko dut eta zer! Ea noizbait gustuak errespetatzen dituzuen!

—Ekaitzek arrazoia du, ea errespetatzen hasten zareten —gehitzen du Elenek.

Biak mahaia jaso eta haserre bizian logelara doazela oihukatzen du amak:

—Txoratuta zaudete! Bihar bertan psikologoarengana joango naiz eta gai hauekin bukatuko dugu.

Handik egun batzuetara, Elene eta Ekaitz eskolan hasten dira, kurtso berria hasiz.

Elene Olatzekin gelditu da, liburutegira joateko asmoarekin, etxeko lanekin hasiak daude eta.

Bertan hitz egiten ari direla, neska bat pasatu da eta Elene hari begira gelditu da, gustatu zaiola dirudi. Olatzek lagunari begiratu eta ukondoarekin bultzatuz esan dio:

—Lerdea darizula! Kontrolatu pixka bat!

Elenek irribarre egin eta neska ederra iruditu zaiola onartu du.

Handik egun batzuetara, Elenek, liburutegian ikusitako neska berriz ere mendian ikusi du. Bakarrik dago eta harengana hurbiltzea erabaki du.

Bata bestearekin denbora bat hitz egiten egon ostean, neska herri berekoa dela kon-turatzen da. Ez dute elkar ezagutzen, baina lagunak egiten hasiak dira. Jone deitzen da eta hasieran Elenerekin hitz egitea kostatu egin zaion arren, poliki-poliki konfiantza har-tzen joan da.

Iluntzean, kontu dezente kontatu ostean, herrira jaitsi dira. Berandu da eta bihar es-kola dute.

Biharamunean, klasean dagoela, zuzendariak klasetik atera eta psikologoarengana eramaten du.

Psikologoak Argiñe izena du eta hurrengo egunetan nola funtzionatuko duen azaldu dio.

Txirrinak jotzean, materiala jaso eta Olatzek eta Elenek etxerako bidea hartu dute. Elenek psikologoarena azaldu dio eta aho zabalik gelditu da. Ez zaio batere ondo iruditu Eleneren amak eta aitak hartutako jarrera. Olatz ere posizio berean egonda dago, futbolarengatik eta ulertzen dio.

Ettxera iritsi, bazkaldu eta entrenamendura joan aurretik mendira joatea erabaki du, bertan Jone aurkitzeko intentzioarekin. Gailurrera iristean, zuhaitz baten azpian aurkitzen du, gaur ere bakarrik.

Musika entzuten ari da eta Elene iristen ikustean irri egin du. Elene harengana hurbildu eta, aurrekoan bezala hizketan ari direla, Elenek Jone musukatzen du. Jonek, harrituta, musuarekin jarraitzen du.

Denbora bat pasa ostean, Jonek erlojua begiratu eta joan egin behar dela konturatu da, patinetan aritzen da eta entrenamendua dauka. Ez dute agurtzeko gogorik, baina ez dute beste irtenbiderik.

Gailurretik jaitsi eta bakoitzak bere bidea hartu du entrenamendura abiatzeko.

Elenek entrenamendua bukatzean, bizikleta hartu eta etxerako bidea hartu du. Irisiten ari dela, norbaitek gutunontzian zerbait utzi duela ikusi eta hura hartzera joan da.

Esku artean hartu eta bere izena jartzen zuela konturatu da. Nork bidaltzen zuen begiratu eta "KTM" jartzen duela ikustean, bi aldiz pentsatu gabe ireki du, bere motor markarik gustukoenak bere izena aipatzea, ilusio handia egin dio. Ireki eta honela jartzen zuen:

"Azaroaren 20an, KTMren eskutik, gure konpainiako partaide izateko aukera ematen dizugu.

Horretarako, hainbat pausu bete behar dituzu, bertan ageriko direnak. Ez ahaztu hauek ondo betetzeaz eta zure zenbakia behean aipatzeaz, kontaktuan jar gaitezen.

Besterik gabe, ondo izan."

Elenek gutuna irakurri eta saltoka hasi da. Betidanik, motorrak ikaragarri gustatu izan zaizkio eta inoiz ez du lasterketa-motor bat frogatu. Noizbehinka, aitzak garajea duena hartu izan du, baina besterik ez.

Ettxera itzuli eta familiakoei gutunaren berri eman die. Ekaitzek, poz-pozik, ideia paregabea dela erantzun dio, baina amari ez dio grazia handirik egin, eta hori mutil kontua dela azpimarratu du. Aitzak ea zorabuta dagoen esan dio, beste behin ere, ea aurrekoan esandakoarekin ez den nahikoa.

Elenek gutuna hartu eta logelara joan da. Adin txikikoa denez, haiek gabe ezin dela joan pentsatzeak...

Hurrengo egunean, Elenek, aurreko arratsaldean jasotako gutunaren berri eman dio Olatzi. Hasieran, txantxa bat dela pentsatu eta barre egiten hasi da, baina gutuna erakustean, aho zabalik gelditu da, ezin sinetsirik. Motorren munduan aritzeko aukera paregabea iruditzen zaio.

Jolas-ordu ostean, berriz ere Argiñerengana joan da. Lehenengo, berari buruzko galderak egin dizkio. Ondoren, poliki-poliki, gurasoei duen harremanari buruz hitz egiten hasi da. Elenek bere gustuak, pertsonalitatea, iritzia... errespetatzen ez dutela azaldu dio eta saioa bukatzean, ikasgelara bueltatu baino lehen, gurasoei ere saioetan parte hartu beharko dutela esaten dio.

Azken txirrinak jotzean, materiala jaso eta etxerako bidea hartu dute Olatz eta biek. Halako batean, hitz egiten ari direla, Elenek zerbait garrantzitsua esan behar diola aitortu dio. Jonerekin gertatutakoa eta beragatik sentitzen duena azaldu dio. Geroago, Olatzek ere zerbait aitortzea erabaki du:

—Zera, bada... Gasteiztik deitu didate eta... ea ez dakit nola esan... Alaves talde-tik deitu didate beraien taldeko kide izateko eta baiezkota ematea erabaki dut. Horrek esan nahi du... herritik joan beharko naizela. Bertan, Gasteizen, egingo ditut ikasketak. Klubak eskola ordaintzen dit.

—Zer? Zorionak! Merezi duzu! Bakarrik utziko nauzu baina, beno, moldatu beharko —erantzuten dio Elenek.

Arratsaldean, atzo bezala, mendira joan da Joneren bila. Bertara iritsi eta hantxe dago, bere musika jarrita duela. Gerturatu eta hizketan egon dira gaur ere. Elkar eza-gutzen ari dira eta, poliki-poliki, beraien artean konfiantza hartzen doaz. Gaur ere, mu-

sukatu dira eta bikote izango direla erabaki dute. Nahiz eta ez diren aspalditik ezagutzen oso harreman estua sortu dute.

Iluntzean, gailurretik jaitsi eta etxera joan dira. Elenek bihar boxeo borrokaldia du eta berandu da. Aste batzuk beranduago, Olatz joan egin behar dela eta, Elenek opari bat egitea erabaki du. Horretarako, bitxi-denda batera joatea pentsatu du, oroigarri bat izan dezan. Joneri deitu eta biak bitxi-dendara joan dira. Bitxi-dendatik irtetean, biak Joneren etxera joaten dira, eta bertan bazkaldu ondoren, Jone agurtu eta Olatzen etxera joan da. Bihar badoa eta agurtzea ezinbestekoa da bientzat.

Txirrina jo eta barrura sartzen da. Maleta egin eta bidaiarako prestatu ostean, agurtzeko ordua iritsi da.

Elenek zintzilikaria atera eta Olatzi ematen dio. Olatzek, begietan negar-malkoak dituela, eskerrak ematen dizkio.

Biak oso triste daude, baina joateko unea iritsi da eta autobus geltokira joan behar dute.

Bertara iristean, elkar agurtu eta Olatzek, autobusean, Gasteizerako bidea hartzen du. Elenek, berriz, etxera joateko bidea hartzen du. Gurasoek Argiñerekin lau orduko saioa izan dute eta arduratuta dago.

Etxera sartu eta denak isil-isilik daude, inork ez du ezer esaten.

—Zer gertatzen da? Inork ez al du hitz egiteko asmorik? —galdetzen du Elenek.

—Gabon laztana! Argiñerekin egon gara eta orain arte gaizki jokatu dugula konaturatu gara —erantzun dio amak.

—Hasteko, barkamena eskatu behar dugu. Ez ditugu zure erabakiak errespetatu eta hori ez dago batere ondo. Horregatik, argi utzi nahi dugu berdin zaigula bisexuala, haragijalea edo dantzariak zareten, nahiz eta zaila egiten den gu hau esaten entzutea. Gainera, etxeko jarduerak zuk bakarrik egitea gehiegizkoa izan da Elene. Emakumea iza-teagatik ez zaitugu gutxietsi behar —azaldu du aitak.

Elene emozioarekin negarrez hasi eta ahotsa dardarka duela esan die:

—Harrituta utzi nauzue, amets bat dirudi. Nire gurasoak nire gustuak eta iritziak errespetatzen!

Ekaitzek eta Elenek, gogoari ezin eutsiz, gurasoak besarkatu eta maite dituztela esan diete.

—Beno, hitz egiten egon gara eta motor frogetara joatea erabaki dugu. Zer diozu Elene? —gehitzen du amak.

—Txantxa izango da, ez? Benetan? Bai!!! Azkenean!!! —oihukatu du Elenek pozez.

—Ekaitz, zuretzat ere badugu. Gabonetan, oporrak hartzen ditugunez... Hawaiara joango gara —dio amak.

Aitak poltsikotik bidai txartelak atera eta Ekaitz harrituta gelditu da, betidanik Hawaiara joateko ametsa izan du eta txartelak esku artean izateak ilusio handia egin dio.


—Eta nik ere zerbait esan beharra dut. Neska bat ezagutu dut... eta berarekin nago... —esan du Elenek urduri.

—Lasai, guregatik primeran, ez dugu arazorik —esan dute gurasoek irribarretsua.

Une hartatik aurrera, Larreategi familia poz-pez bizi izan zen. Bakoitzaren gustuak era iritziak errespetatzeak familia asko estutu zuen. Ez ziren horrenbeste haserretzen.

IPUINA

*Alzheimerraren
mina*



*Ainhoa Pardina
Bosgarren taldea
1. saria*

Batenzuya 19

Alzheimerraren mina



956an gaude eta Joxetxo maiteak nirekin dantza egin nahi duela esan dit. Nire bizitzako erromeriarik kuttunena da hau, Joxek, Itxebolta-ko Joxek, nire Joxetxok dantza bat eskatu dit eta dantzan aritu gara! Gazteak gara, hoguei eta hogeita bost urte bitartean gaude biok. Gaztetasun hori garbi-garbi nabari da gure arteko maitasunean, gure zainetan, gure bizitzan; aldiz, nire azalari begiratzen diodanean zimurrak besterik ez ditut ikusten... atso zahar bat dirudit... Zer demontre gertatzen ote zait?

Egun osoa ohean pasatzen dut. Ohetik aulkira eta aulkitik ohera. Denboraren nozioa ere galdua dudala iruditzen zait... ez dakit zer gertatzen zaidan. Baserrian norbait sartu dela dirudi. Joxetxo ote? Nire Joxetxo...

—Kaixo ama. Barkatu, ezin izan naiz lehenago etorri, umeak zaindu behar nituen, badakizu, ezin ditut bakarrik utzi... Zer moduz zaude gaur? —jaurti dit ahots goxo eta berezi batekin gizon ezezagun batek.

Ezin mugituta gelditu naiz... “Ama”? Nola izango naiz ba bere ama, ni baino de-zente zaharragoa da eta! Nor izango da gizon hori? Joxetxo behintzat ez da... eta inguruko baserri batekoa ere ez, guztiak ezagutzen ditut eta... Emaxkober-ko Maritxu eta Jexux, Botziburda-ko Kontxi eta Antonio... ez, ez, inguruko baserri guztietako adin horretako gizon-emakume guztiak ezagutzen ditut eta gizon hau ez da horietako bat ere... nor ote?

—Ama, ondo al zaude? Zergatik ez didazu ezer esaten? Badakizu nor naizen, ezta? —galdetu dit erdi etsita, erdi itxaropentsu.

Ez dakit nor den, baina nola esango diot nik orain? Agian ni engainatzera etorri den norbait izango da, hori beharko, niri lapurretan egiteko edo auskalo zertarako... baina horretarako indarraz baliatzea da ohikoena agian... ez dakit zer pentsatu... agian ezagutu beharko nukeen norbait izango da... batek daki... Dakidan gauza bakarra da ez dela nire semea, nik oraindik ez baitaukat seme-alabarik, eta are gutxiago ni baino zaharragorik... hori ezinezkoa da. Zergatik deitzen dit ama? Zertarako etorri ote da hona?

—Tira, ama, Martintxo naiz, zure seme zaharrena... benetan ez zara nitaz oroitzen? Begira, hauek Luis eta Izas dira, zure gainontzeko bi seme-alabak —dio argazkiak erakusten dizkidan bitartean—. Beste hauek, berriz, Iñaki eta Ane, nire seme-alabak, hau da, zure bilobak.

—Nola izango zarete zuek nire seme-alabak, ni baino zaharragoak bazarete? —ausartu naiz galdetzeraz, tonu nahiko lehorrean.

—Zer? —erantzun dit—. Ama, erantzun galdera batzuei mesedez... nor zara, zenbat urte dituzu eta norekin bizi zara?

—Nor izango naiz ba? Bixenta, Idaigo-ko Bixenta! Hogeitaz urte ditut eta familiarekin bizi naiz: amarekin eta anai-arrebekin, aita gaztetan hil baitzitzagun. —erantzun diot mesfidati.

—Bai, Bixenta zara, bai, Idaigoko Bixenta. Hori behintzat badakizu, eskerrak... baina ez, ez zara familiarekin bizi, bakarrik bizi zara, nahiz eta guk txandak egin eta ahal dugun guztietan etortzen garen zuri laguntzera. Non dago bestela aipatutako familia guztia? Eta ez, ez dituzu hogeitaz urte, 82 baizik. Ez badidazu sinesten, begiratu ispiluan...

—Familia soroan lanean egongo da! —bota diot haserretzen eta beldurtzen hasita.

Haserretzen hasita nago, baita beldurtzen ere; izan ere, jakin badakit esaten dituen gauza askok zentzua dutela eta nik esaten ditudanak ez dutela zentzurik, adinaren eta ispiluko islaren kontraesana, familia osoaren absentsia... Nola azaldu? Baina nire buruan daukadan informazioa horixe da... Zer gertatzen zait? Norbaitek lagun nazala, arren!

Egun guztian ez dut gehiago ahorriz zabaldu, ezta oinik ez besorik mugitu ere. Lehen ohetik aulkira, orain aulkitik ohera. Beste egun bat amaitu da bebingoz. Egun bat gutxiago sufrimendu hau amaitzeko. Atsedena. Bihar beste egun bat izango da.

Egunak joan, egunak etorri... egun guztiak berdinak omen dira, egunero gauza bera gertatzen omen zait, hiru seme-alabekin. Horixe diote beraiek. Nik, ordea, ez dut ezer gogoratzen. Esaten didate 2018. urtean gaudela baina ni 1956an bizi naiz. Denboran salto egin eta denboran zehar bidaiaitu ote dut ba? Ez dut ezer ulertzen eta milaka galdera dauzkat buruan. Nire seme-alabak omen direnek guztia ulertzen omen dute, baina ez didate ezer azaldu nahi... ZER GERTATZEN ZAIT?

Eguneroko bizitza bilakatu omen da ohetik aulkira eta aulkitik oherakoa. Gaur, al-diz, indartsu esnatu naiz, kementsu, bizitzeko gogoz beteta. 1956. urtea da eta erromeria bat dago. Agian Joxetxo ere joango da eta zorte apur batekin berarekin dantza egin ahal izango dut!

Korrika irten naiz baserritik eta azkar joan naiz erromeriarantz, dantzaldirantz. Bizkor, dena bizkor. Bat-batean, galduta nagoela ohartu naiz. Herria oso ezberdin dago, asko aldatu da atzotik hona... ez dakit nola baina eraikuntza asko bota eta berriak egin dituzte, ortu askoren gainean etxeak egin dituzte, kale zaharrak itxi eta berriak egin dituzte... nola egin ote dute guztia egun bakarrean? Eta nola aurkituko dut nik orain dantzaldirako bidea?

Orduak igaro dira kalean galduta nagoenetik eta geroz eta gehiago beldurtzen ari naiz. Bai gorpuzta eta bai burua nekatzen ari zaizkit, indarrrik gabe gelditzen ari naiz, itzaltzen ari naiz. Baina, zer egiten dut oinutsik eta kamisoiarekin kalean? Zertan ari naiz? ZER GERTATZEN ZAIT?

Kalean hainbat pertsonarekin gurutzatu naiz eta guztiek arraro begiratzen didate eta ez didate lagundu nahi. Beldurtu egiten direla ematen du. Nik ematen diet beldurra? Posible ote? Erromeriara nola irits naitekeen galdetu nahi diot norbaiti, baina guztiak nigandik urruntzen dira ni gerturatzen natzaianean. Ezin dut gehiago, nire bizitzako egunik onena izan behar zena nire bizitzako egunik txarrean bilakatu da. Zer egin ez dakidala nagoenez, kaleko banku batean esertzea erabaki dut. Hau hotza... ezin diot negarrari eutsi...

—Kaixo, barkatu. Ondo zaude? Zerbaitetan lagun diezazuket? —laguntza beharrean nagoela ohartu da neska gazte bat eta nigana hurbildu da ahots leun eta goxo batekin.

— Kaixo. Ez dakit, agian bai... zuk badakizu nor naizen?

—Ez... sentitzen dut... baina, ezagutzen duzun norbait bilatzen lagun diezazuket, nahi baduzu... —gazteak ez daki zer eskain diezadakeen, ez daki oso ondo nola lagundu—. Ez dakizu ez nor zaren, ez non bizi zaren eta ez ezagutzen duzun inoren izenik?

—Ez... —negar-zotinka hasi naiz, egoera hau jasan ezina baita—. Lagundu mesedez!

—Ongi da, lasai, lagunduko dizut. Ez zaitut bakarrik lagako ezagutzen zaituen norbait aurkitu arte.

Horrela, lehenik, gazteak bere txamarra utzi dit, kamisoi hutsean nagoenez hotzak akabatzen nagoelako. Gero, kalean apur bat ibili gara ea ni ikustean ezagutzen nauela esanaz norbait hurbiltzen den ikusteko, baina ez du ezertarako balio izan. Beraz, azkenik, udaltzainengana eraman nau, galdutako poltsa bat banintz bezala. Objektu bat. Hori al naiz ni?

Udaltzainak neska gazteari eskerrak eman eta lasai joateko esan dio, bera arduratuko dela orain nitaz. Ez dut nahi. Ez diot inori lanik eman nahi. Ez dut inorentzat zama izan nahi. Etxera itzuli nahi dut. Etxera, ohera, besterik ez. Joxetxo, nire Joxetxo mai-tea, non zaude? Zure beharra daukat! Ez dakit zer gertatzen zaidan!

Neska gazteak irribarre egin dit eta udaltzainari esan dio ez dela joango ni ezagutzen nauden norbaitekin utzi arte. Horrela, udaltzainak nire ezagunen baten bilaketari ekin eta gaztea nirekin hitz egiten gelditu da, konpainia egiten, oraintsu ezagutu garen arren, gutxienez, aurpegi ezagunen bat eduki dezadan aurrean. Emozioz beterik daukat barrua: nire ondoko neskaren adeitasunagatik eskerturik, lagun bat egin dudalako sentsazioagatik pozik, zer gertatzen zaidan ez dakidalako beldurrez...

—Tira, ez iezadazu begiratu horrela. Esan dizut ez zintudala bakarrik utziko ezagutzen zaituen norbait aurkitu arte! —jaurti dit irribarre gozo batez, erdi txantxetan, ni lasaitu nahian—. Ez natzaizu aurkeztu ere egin, sentitzen dut. Eider daukat izena. Eta... zure izena ez dakigunez, hemen zauden bitartean Kattalin deituko dizut, ados?

—Eider? Ze izen da hori? —ez dut sekula izen hori entzun, beste lekuren batekoa dirudi, ez behintzat 1956. urteko Euskal Herrikoa—. Eta ados, deitu nahi duzun bezala...

—Beno, izen arrunt samarra da... nire lagun askok daukate izen bera...

Zer dio orain honek? Nire herriko askok balute izen hori ezagutuko nuke, ez? Zergatik esan ote dit gezurra? Ezin al naiz inorekin fio? Tira, gutxienez niri konpainia egiten gelditu da, gezurrezko izena esatearena barkatu egin beharko diot...

Gaiz aldatzeko, nire bizitza kontatu diot, Joxetxorekin erromeriara joateko gogoa ere adierazi diot eta mutilei buruz aritu gara. Ezin dut sinetsi. Ez du nire Joxetxo ezagutzen! Ez daki nor den! Nola, bada? Herri txikia da hau eta bertan guztiok ezagutzen dugu elkar...

—Ba begira —hasi da bera—, nik ere bikotekidea daukat eta, gainera, bere argazki bat erakuts diezazuket! Ikusi nahi duzu?

—Bai, noski! Agian dantzaldiren batean berarekin dantza egina izango naiz, kar kar kar.

Neskak aurpegi arraroa ipini dit, irribarre arraro batekin, zerbait ezkutatzen balego bezala. Inbidia agian. Bere aurpegiak zer ezkutatzen duen asmatzen saiatzen ari naizen bitartean tramankulu arraro bat atera du poltsikotik.

—Zer demontre da hori? —galdetu diot, mesfidati.

—Kattalin, mugikor bat da, telefono mugikorra, besterik ez. Ez zaitez beldurtu. Beste norbaiti deitzeko balio du, baita argazkiak edo bideoak atera eta ikusteko ere. Beno, eta horrez gain beste hainbat gauza ere egin daitezke.

—Ez esan gezurrik, telefonoak ez dira horrelakoak! Askoz handiagoak dira, bi zati dituzte eta bi zatiak kable batek lotzen ditu. Zati handienak borobil bat dauka erdian eta borobil horri birak emanda deitzen zaio jendeari. Zati txikienak bertatik hitz egiteko eta entzuteko balio du. Gainera, hori ere lotuta egoten da, ezin da bere lekutik mugitu, eta are gutxiago kalera ekarri! Ez luke funtzionatuko. Zer uste duzu, tuntuna naizela, ala? Ez naiz gogoratzen ez nire izenaz ez non bizi naizen, baina ez naiz tuntuna! —esan diot, haserretzen hasita.

Eiderrek telefono mugikorraren funtzionamendua azaldu dit eta sinetsi beste aukerarik ez dut izan. Baina zergatik ez dut nik horrelako aparatuen berri? Geroz eta beldur handiagoa daukat.

Udaltzaina inguratu da gugana eta nire seme-alabekin kontaktatzea lortu duela esan digu. Laster helduko omen dira gugana eta aitortu behar didaten konturen bat omen dago. Tira, ea horrek nire buruan dena ordenatzen duen...

Nire seme-alabak omen diren hiruak batera etorri dira nire bila. Udaltzainari eta nire ondoko neskari eskerrak eman dizkiote eta baserrira abiatu gara. Tira, etxera behingoz! Hau nekea... Zer izan da gertatu berri zaidana? Ezin dut beldur hau jasan, ez dut nire burua ere ezagutzen... ezin dut gehiago, nahiago nuke hil... Ai, Joxetxo, non zaude? Zergatik ez zatoz nigana?

Baserrira iritsi gara eta nirekin kotxean zeuden hiruak nire parean eseri dira, kontu serioaren bati buruz hitz egiteko edo.

—Ama, hitz egin behar dugu...—dio neskak.

—Bai, ama, entzun iezaguzu arretaz, mesedez...—jarraitu du mutiletako batek—. Bixenta zara, Idaigoko Bixenta. Gu zure seme-alabak gara eta behin eta berriz errepikatzen duzun Joxetxo gure aita...

—Joxetxo! Eskerrak, behingoz ezagutzen dudan norbait! Eta non dago? Berarekin egon nahi dut!—diot itxaropentsu eta Joxetxo ikusteko irrikaz beterik.

—Ama... aita duela sei urte hil zen...—beste mutilak, begiak busti bustita zeuzkala.

—Zer? Hori ezinezkoa da! Gezurretan ari zarete! Eta zergatik ez dut gogoratzen?—diot, esan didatena sinetsi ezinik, edo gezurra izan dadin desioan.—Hogei urte izan arren zergatik dirudit adineko pertsona bat ispiluaren aurrean? Zergatik daukat azala horren zimurra? Zer gertatzen zait?

—Entzun, ama...—hasi da berriz neska—. Aita hil bezain laster gauzak ahazten hasi zinen. Hasieran garrantzirik gabeko gauzak ziren, ez ginen gehiegi arduratu, baina gero guztiak okerrera egin zuen... Ama, alzheimerra diagnostikatu zizuten... gaixorik zaude, horregatik ahazten zaizkizu gauzak, horregatik ez duzu ia ezer gogoratzen.

Hitz gogorrok jaurti ostean guztiak negarrez hasi dira eta ni galduta sentitzen naiz. Ez daukat negar egiteko gogorik baina ez dut ezer ulertzen. Nik nire Joxetxorekin egindako dantzak gogoratzen ditut, baita momentu horretako nire sentimenduak ere. Ezer ulertu gabe jarraitzen dut. Nortzuk dira aurrean dauzkadan hiru ezezagun hauek? Noiz eta nola itzuli naiz erromeriatik? Joxetxo neskalguntzen ibiltzen da sarri, berak lagundu ote dit baserriraino itzultzen? Non ote dago? Bihar ere ikusiko ote dut? 1957an ere berarekin dantza egiteko aukerarik izango ote dut?

Nire etxean dauden hirurek nire aurpegi galdua, espresio handirik gabea, ikusi dutenean elkarri begiratu diote, aurpegi tristez, erabaki gogorren bat hartu balute bezala. Horrela, niri begiratu eta zaharren egoitza batera bidaliko nautela esan didate. Zaharren egoitza? Zer uste dute baina, eurak baino gazteagoa naiz eta! Gainera, nortzuk dira hauek mehatxu egin eta nire etxetik, mendez mende nire familiarena izan den baserritik, botatzeko?

Aulkitik ohera, ohetik aulkira... horixe omen da betikoa. Ba orain ere, aulkitik ohera. Bihar beste egun bat izango da, eta agian Joxetxo, nire Joxetxo ikusiko dut.

Lo-kuluxka oso motza izan delakoan nago, badirudi begiak itxi bezain laster ireki ditudala, oso nekatuta esnatu naiz eta; gainera, gorputz osoa minduta daukat. Hau bai arraroa...

Arraioa! Nire ohearen ondoan beste ohe bat dago! Eta barruan emakume zahar bat! Zer da hau? Non nago? Hau ez da nire baserria! Nola iritsi naiz hona? Lehenbailehen irten behar naiz leku honetatik eta nire baserri kuttunean geldituko naiz betiko.

Erizain bat sartu da atetik. Zer da hau, ospitale bat? Ez dut ezer ulertzen. Erizainari galdetu eta zaharren egoitza bat dela azaldu dit. Hogei urte besterik ez dauzkat eta! Zer egiten dut nik hemen! Ez nuke hemen egon beharko! Erizainak ez dit beste ezer esan nahi izan eta, “dena ondo dagoela” ikusi duenean, alde egin du. Nik, zer egin ez da-kidala, leihoaren beste aldeari begira gelditu naiz, kartzela honetatik noiz aterako nauten zain.

Bakarrik nago, nire ondoko ohea ere hutsik. Bakardadea. Nire Joxetxok abandonatu egin nau. Ez didate hemendik irteten uzten eta bera ez dator nire bila, ez dit bisita ba-
kar bat ere egin. Ai, Joxetxo... jakingo bazenu zenbat maite zaitudan...

Zuriz jantzitako emakume bat sartu da gelan. Ez dut ezagutzen. Berak erizaina dela dio. Berarekin hitz egitea erabaki dut, asperduraren asperduraz hilko naizelako bestela. Bere esanetan hilabeteak daramatzat hemen eta asteen birritan etortzen omen dira nire seme-alabak omen direnak, ni bisitatzeko. Gezurra, dena gezurra. Nik ez dut leku hau ezagutzen eta nik ez dut seme-alabarik. Nola ba, hogei urteko gazte bat naiz eta.

Aulkian eserita nago. Ohetik aulkira eta aulkitik ohera. Betikoa. Orain ezin naiz mu-
gitu, gorputzak ez dit erantzuten... Leihotik begira nago eta beste aldearekin ametse-
tan nago, askatasunarekin. Arnasa hartzeko geroz eta esfortzu handiagoa egin behar
dut eta badirudi nire bihotzak ere ez duela lan egiteko gogo handirik. Hezur eta hara-
giz egindako makina hau herdoilduta dagoela dirudi. Ezer ez, gorputzak ez du eran-
tzuten. Joxetxo. Joxetxo ikusten dut niri irribarre egiten. Esquak zabalik dago, behin-
goz elkarrekin dantza egingo dugula esanaz. Begiak itxi ditut. Puf. Bat-batean
lasaitasuna, oinaze guztiak desagertu dira.

IPUINA

*Etorkizuna:
istorio baten ispilua*



*Amaia Alonso
Bosgarren taldea
2. saria*

Batenzina 19

Etorkizuna: istorio baten ispilua

—Amatxo, zuk zergatik aukeratu zenuen medikuntza ikastea?

—Zer dela eta galdera hori, Naiara?

—Betidanik jakin nahi izan dut. Niri ere gustatzen zait osasunaren mundu hori... baina karrera luzea eta zaila omen da... ez du merezi!

—Ez duela merezi? Zer diozu? Entzun arretaz...

.....

Zapatu goiza zen. Udako eguzki izpiek gogor jotzen zuten bitartean haize goxoak laztantzen zigun aurpegia. Uztaila zen, eta senide guztiak elkartuta geunden baserrian amonaren urtebetetze eguna ospatzeko. Hura bai festa! Freskagarriak alde batetik, janaria bestetik... eta nola ez, denok aurpegian irribarre bat margoturik. Ez zegoen kezkarik momentu haietako poztasuna ezabatuko zukeenik... telefonoak jo zuen arte.

—Bai? Nor da?

—Kaixo ama. Zorionak! Nola doa eguna?

—Kaixo seme! Mila esker. Oso ondo doa dena, poz-pozik gaude denok! Non zaude? Ba al zatoz?

—Medikuarenean egon naiz ama. Gogoratzen al zara lantegian eginiko analisisiez?

—Noski. Dena ondo, ezta?

—Zera... horregatik deitzen dizut. Berri txarrak ditut ama. Odolean hainbat arazo ditudala aurreikusi dute medikuek... Odoleko minbizia daukat ama.

—Zer? Txantxetan ari zara, ezta?

—Ez ama... hilabete barru hasiko dut tratamendua.

Amonaren poztasuna bat-batean desagertu zen. Ezin zuen egoera ulertu, amesgaizto batean murgilduta egongo balitz bezala sentitzen zen. Ezer esan gabe, telefonoa eseki eta negar batean hasi zen.

—Eraman nazazue etxera, mesedez. Ez dago ezer ospatzen jarraitzeko arrazoirik.

Ezin genuen ezer ulertu. Aitona duela bi urte galdu genuen, eta ez geunden berriz inor galtzeko prest. Beno, uste dut inor ez dagoela prest inoiz norbait galtzeko. Bage-nekien horrelako gaixotasunak batzuetan sendagarriak zirela, baina bagenekien heriotza ere zoritxarrez estuki lotuta zutela.

Abuztuaren 8a zen eta osabak jada minbiziaren aurkako tratamendua hasia zuen. Ospitalera joan-etorriak gure errutinaren parte bilakatu ziren. Uda hartan bost axola ziztaizkigun udako oporrak. Senideok desira bat besterik ez geneukan buruan: osaba sendatzea.

Bat-batean, gauzak guztiz okertu ziren. Urriaren 20a... ez ziren ezta hiru hilabete pasatu tratamendua hasi zuenetik. Kimioterapiaren bigarren zikloa hasi eta osabak horterria harrapatu zuen. Makina bati konektatu zioten medikuek makinak berak lagun ziezaion arnasa hartzen, itotzen hasia baitzen osaba.

Bitartean, senideon artean isiltasuna zen nagusi. Hitzik ere ez, malkoak besterik ez. Amona fededuna zen, eta ez zegoen egunik errezatzen ez zuenik. Ni, ordea, inoiz ez naiz izan fededuna, eta momentu haietan ere hau ez zen aldatu. “Norbait egongo balitz hor goian ez ginatekeen egongo horrelako egora latzik bizitzen...” pentsatzen nuen. Dena den, ez nion garrantzi handirik ematen erlijioari momentu haietan. Nire osabaren bizitza arriskuan zegoen, eta zutik eusten zigun gauza bakarra esperantza zen.

Egunak joan ahala, gauzak egoera berdinean ziraute, beraz, medikuek konektatu zioten makina itzaltzea erabaki zuten. Bi aukera zeuden: osaba bere kabuz arnasten has-tea, edo... heriotza.

—Ibairen familia? —galdezka etorri zen medikua.

—Bai, gu geu —zutitu ginen ospitalean geunden senide guztiak.

—Dakizuenetz, makina itzali dugu... eta bere kabuz arnasten hasi da. Orain atse-
den hartzea komeni zaio, baina bisitak egiteari egoki deritzogunean, deituko zaituztegu.

Hura poza! Amona negarrez hasi zen, poztasun malkoak isuriz. Ezin nuen sinetsi.
Momentu hartan amonari begiratu eta fede puntu bat barneratu zitzaidan. “Hau mi-
rari bat da. Beharbada badago norbait... zeinek jakin” hausnartu nuen.

Konturatu eta jada udaberrian geunden. Zuhaitzak loratuta, txoritxoek kantua, zeru
urdina... uda nahiko gertu zegoen eta nabari zen. Negu gogorra bizi genuen, baina po-
liki-poliki eta esperantzara estuki loturik, aurrera gindoazen. Osabak hainbat trata-
mentu jaso zituen ordu arte, baina bat bera ere ez zen ongi atera. Hezur muineko trans-
plantea ere jaso zuen baina emaitza onik ez. Itxarotea besterik ez genuen, beste mirari
baten zain...

Egunak joan eta egunak etorri, ez zen aldaketarik gauzatzen osabaren osasunari ze-
gokionez. Denbora aurrera zihoan, eta bere gorputza geroz eta ahulago zegoen, trata-
mentuak zirela medio. Guk esperantzarik ez genuen galtzen, ezta pentsatu ere...
baina egoerak ez zuen bibrazio onik ematen.

Handik hilabetera, dei bat jaso genuen. Medikua zen.

—Kaixo, zer moduz? Ibairen berri eman nahi dizuet. Zintzoa izan behar naiz, eta
egoera den modukoa azalduko dizuet. Iganderaino ematen diogu bizi-itxaropena, be-
raz... asko sentitzen dut, baina bera agurtu nahi izanez gero orain da momentua.
Asko sentitzen dut...

Zapatua zen, eta nire txanda zen. Nire bizitzako momenturik gogorrena bizi behar
nuen eta ez nekien ezta kapaz izango nintzen ere... Ospitalean sartu, eta igogailuan
gora, osabaren gelarantz abiatu nintzen.

—Kaixo osaba! Zer moduz zaude?

—Kaixo laztana. Ondo, betiko moduan... ez al duzu ikusten? —barre egin zidan.

Nik banekien ez zela egia, baina nire tristura arinagoa izateko edozein gauza egin
eta esaten zuen. Nik, aldiz, ezin izan nien malkoei eutsi eta negarrez hasi nintzen.

—Ez egin negarrik maitea... bizitza horrelakoa da. Gaur hemen zaude eta behar-
bada bihar ez. Nik 40 urte hauek ikaragarri ondo bizi izan ditut, maite ditudan per-

tsonez inguraturik... ez dut ezer gehiago behar. Gainera, momentu oro mediku paregabeaz inguratuta egon naiz, eta seguru nago nire kasua, beste hainbatena den bezala, baliagarria izango dela beste hainbat gaixo sendatzeko. Laztana, gogoratu itzazu bizi izan ditugun momentu on zein txarrak, baina batez ere, onak, zorionezkoak.

Eta medikuek esan bezala, igande hartan joan zitzaigun gure osaba maitea. Urte gogorra pasa genuen ospitalera joan-etorriak egiten, baina merezi izan zuen. Ez nuke nire osabarekin bizitako momentu bat ere ezergatik aldatuko. Bere gorputza ez zegoen gurekin, baina bere arima betiko gelditu zen gure artean.

Ez geneukan ezer aurpegiratzetik inori. Osabak ahal zuen arte borrokatu zuen, eta medikuek ahal beste egin zuten arazoei konponbidea bilatzeko. Egia esan, medikuen lana paregabea izan zen. Konpromiso handia zegoen osabaren kasuan, eta txundituta utzi ninduten beraien lanarekin. Bukaera arte tratamendu desberdinak ezarri zizkionten, baita Estatu Batuetan probatzen zeuden tratamenduak ere. Azken batean, ez zegoen ezer galtzerik, eta aukera guztiak agortu behar genituen. Beste hainbat ospitale-tan bigarren iritzien bila ere aritu ginen, baina alferrik: ez zegoen konponbiderik.

.....

—Ama... ez nekien ezer zure osabari buruz. Ez didazu inoiz ezer kontatu.

—Badakit maitea... Gogorra da niretzat, uleriezadazu. Baina, tira... hor duzu nire lanbidearen arrazoietakoa bat.

—Baina ez dut ulertzen ama... Zer ikusi du horrek?

—Ez zegoen tratamendu egokirik osaba sendatzeko maitea, eta osabaren kasua bezalako beste hainbat. Beraz, gutxi pentsatu behar izan nuen medikuntza arloan murgildu nahi nuela aukeratzeko. Poliki-poliki aurkituko ditugu tratamenduak zoritxarrezko gaixotasun hauek guztiak sendagarri bihurtzeko.

—Esan didazu hori dela arrazoietakoa bat, baina zeintzuk dira besteak? —galdetu zion alabak.

—Denbora luzea igaro nuen ospitalean, eta gauza asko ikasi nituen. Gaixotasun desberdinez inguratuta nengoen, eta gaixo bakoitzaren irribarreak sentimendu desberdin bat transmititzen zidan, Horrela ikusi nuen ingurunea eta nire ingurua balioztatzen, daukagun guztiaren garrantziaz jabetzen. Askotan diruarekin erlazionatutako objektu edo materialetan soilik pentsatzen dugu: telefono mugikorra dela eta ez dela, telebista

berria... Baina horrelako makina eta aparatuek ez dute balio ezertarako, osasunik ez badaukazu. Osasuna da bizitza honetan garrantzia handieneko kontzeptua. Ez dugu balioztatzen daukagun guztia, galtzen dugun arte... beraz, egin ezazu, berandutu baino lehen...

—Edonork esango zuen psikologia ikasi zenuela medikuntzaren ordezt!

—Aizu, medikuntza-ikasketetan ere psikologia arloa lantzen da —egin zuen barre.

—Baina bai ama, arrazoi duzu. Ingurunea eta gure ingurua maite behar dugu, eta egun guztiak gure azkenengo egunak izango balira bezala aprobetxatu. Gaur hemen gaude, baina bihar... auskalo! —isilunea egin zen—. Egia esanda, eta esan didazuna kontuan hartuta, medikuntza ikastea merezi du. Azken batean gaixoak sendatzen dituzu, eta beharrean dauden guztiei lagundu... Estereotipo guztiak hautsi beharko genituzke, eta haratago behatu, benetako garrantzia duten gauzak gainjarriaz.

—Ikusten dut ulertu duzula helarazi nahi nizuna alabatxo!

IPUINA

*Toka zekizuekeen
alabarik onena.
Nola bestela!*



*Mari Toxe
Azurtza*

*Bosgarren taldea
3. saria*

Batenzina 19

Toka zekizuekeen alabarik onena

Nola bestela!

Aita, ama:

Zein alaba polita eta jatorra izan zenuten. Zuek zeuek aukeratuta ere, ez dakit hoberik jasotzerik izango zenuten. Zuen bizi menturak txalotzekoak izan baziren ere, ez dute mailarik nireekiko. Zer ote da ba, aita, Eibarren Errepublika eguna aldarrikatu zuten Ostiral Santu horretan jaiotzea, zuk gero “Gora Errepublika!” esanez esnatzen gintuzun egun gogoangarria, ni neu Santa Ageda egunean jaiotzearekin parekatuta, bezperako oles eta tradizio kantuek ondua? Zurea dena zen modernoa, eraberritzailea eta nirea Euskal Herriari errotua, bertakoa. Horra ezberdintasun argia eta handia! Ez duzula ikusten diozu? Aita, arren, euskaldunak norbait bagara tradizioei lotzen gataizkiolako da. Ezetz? Hara orain psikiatra modernoaren ahotsa, —psikiatra sendagilea izan behar zenuen zuk ere, aita—: bizitza aldaketa dela, gurea egokitzea dela eta euskaldunok iraun badugu, egokitzen jakin dugulako dela, berritasunetan murgiltzen. Zu bai modernoa, aita! Zure Psikiatria jardunaren jakinduriaren aurrean nik zer esango dut ba, modernitatean barneratutako Informatikan Ingeniaria naizen honek, ez dakidala modernoa izaten. Hori izango da... Aja! Nik aurea hartu dizut, aita! Zirikatzailea, ni? Bai, aita bai. Aldarte onez naiz gaur. Zureari helduz: egokitzen horregatik egokitu zineten zuek Karakasa, erbestera. Ospitale Psikiatrikoko buru izatera heldu zinen han eta gero, hona bueltan, anbulantzia, larrialdietan gaueko txandan hasi. Buf! Ez zen ez samurra izan etorrera, zuen herrian berriz sustraitzea. Ez dakit ez ote zen hobe izango

han gelditu bazinete, aita, urtetxo batzuk gehiago, bizitza bideratua baitzenuten, eta ni Karakeñoa izan honela! Ia total, amerikarrak ziren beste seme-alaben artean bizitzen ohituak zeundeten eta!! ... bueno, noski, zuk bazeneramatzan hamalau urte, itzul-
tzeko garaia zen Franko hil ostekoa. Eta ni! Donostiarra zuek bezala! Honela babesten nuen nire burua mahai inguruetan anai-arrebek ernegatzen nindutenean, “zuek denak amerikarrak, eta ni Donostiar bakarra, aitatxo eta amatxo bezala!” eta mingaina era-
kusten nien. Umm, espioiak ote ziren amerikar horiek, gutxi fio!, zeharka begiratu izan nien erretxinduta nintzen aldiren batean.

Bai, bai, txorakeria galanta bota dut ama, ei! baina barrez ari zarete biok. Radio Eus-
kadi Venezuelako oihanean, horren berri ere izan zenuten. Aja! Bai. Urte ederrak, ezta,
ama, han, Venezuelan? Buruarekin baietz diozu. Nik Ingalaterran pasatakoak baino ho-
beak ez ziren izango, han Karibean. Ez zegoen kokoterorik, ez eguraldi argia eta epela
Ingalaterran, hori ametitzen dut. Baina zer ote da hori “politness”a bizitzearen parean,
kea eta behe lainoaren xarma... “alderik ez, alaba”, diozu. Eta nik ere hori bera diot, al-
derik ez. Ahaztu ote dudan zu 1956an urtebetez izan zinela Londonen? Ejem. Bai, orain
hizketan ari nintzela ahaztu egin zait. Zuk Londonen bizi esperientzia ni baino askoz
ere lehenago izan zenuela, eta bizi esperientzia zirraraigarria gainera, ikasle gisa pasa
baitzenuen urtebete. Marxen hilobia ezagutu zenuen eta, apika, ni baino kontraste han-
diagoa bizitu zenuen diktaduratik irtendako hamazortzi urteko gaztea izanik. Beno, ha-
lere, ni alabarik kuttunena, ezta hala? Aizue, etxeko donostiar peto bakarra, zuetaz gain.

Eta begira hor apaletan dagoen trofeo eta kopa mordo. Tenisean ordu piloa eman
eta hark bere emaria. Ez esan ez duzuenik arrakastadun alaba izan. Dohain eta iaiota-
sun ugarikoa. Zer, nolako egurra, halako ezpala diozue? Ea ba, ama, zer da ba trofeo
mordo hura zazpi haur munduratzearen parean, askoz ere balentria handigoa nirea! Zu-
rea naturala izan da. Beno, zuena esan behar dut. Eta aita, zuk Euskal Herritik nola ihes
egin behar izan zenuen istorioa, Donostia ospitalea bat batean goizeko zortzietan utzi
eta Oiartzundik gora Kanbora, ba, beno, historia ikusgarria da, baina arrunta garai har-
tan, ez? Gaizki ari al naiz orain ere? Jo, alabarik onena izateko nahiko egur ematen ari
zatzaizkidate ba gaurkoan! Ez iezadazue esan Ingalaterran bizitu nuen esperientzia-
rekiko zuek Karakasén bizitakoa guztiz arinagoa ez zenik izan. Zuek senar-emazte zi-
neten, ezagunak bata bestearekiko, eta euskaraz egiten zenuten etxerakoan; nik In gla-
t erran, komentuetan pasa nuen denbora osoa, antzeko ametsaren bila zebiltzan

ezberdinen artean, nahiko estuasun polit izan nuen, eta gainera hogeita lau orduz ingelesez. Zuek hamar urte pasatxo, nik bost. Zer esanik ez nirea marka izan zela gero, urte gutxiagotan agudoago ohitu behar izan nuen!

Zuen seme-alabarik atseginena —zer, gogaikarriena esan duzu hortz artean, aita? Ale, arren, kontzentratu zaitezte— eta gustukoena nauzuen honek, ba, zer esan. Ni gaur egun, itzal zabaleko zuhaitz abegikor dotore gisa, emakume zabala nauzuela. Ez, ez, oker zabiltzate, zabala ez gerribueltan, nire ikuspegi eta harreran baizik. Nire azkartasuna agerian. Ez, ez, azkartasuna ez abiaduran, burutsua naizelako baino. Ea, aita, ama! Nahikoa duzue ni ernegatzeaz. Begi bistan dena bakarrik esan nahi dizuet hasieratik, ni gabe zuen bizitza goibelagoa izango zela eta zuek hori aitortu ezinik. Hala baita zuen bizitza, ni ezagutu ninduzuenetik, alaiagoa, oparoagoa, maitagarriagoa. Hau onartzeko lotsa dabilkizue, horrek behar du.

Katire lindo, hura bai hitz ezia. Etxeko beste hiruri ere esaten zenietela? Bai, bale, baina niri luzaroen, azkena nintzen eta! Ikusten? Ni naiz, toka zekizuekeen alabarik konpletoena. Harrobi onera ekarri ninduzuela onartuko dizuet, hargin onak izan zaitzuet.

Donostiako Ospitale Psikiatrikoa ala Donostiako udala. Ea ama, emadazu zure iritzia. Zein da biotatik lan egiteko leku sonatuagoa, itzaltsuagoa, aitarena, ala nirea? Begira datu erabakigarria: nik herritar denak, ez gaixo daudenak bakarrik, artatzen ditut, luxuzko Kasinoan gainera, pentsa. Zer diozu, baina! Ez bata, ez bestea? Zuk bideratu duzun enpresa aurrera ateratzea izan dela punta-puntako ogibidea? Eta zein da ba hori? Etxeko andrea izan zara eta, ama! Ahh!! Ona zure erantzuna. Gure familia: hauxe zuk, egunero-egunero jaiki eta hamabi ordu lan eginez, aurrera atera duzun enpresa, erraie-tako ametsa. Bete-beteko dedikazioa, eskusiboa. Zuk bai bota didazula ezohiko erantzuna. Aparta, ama.

Bai, eta ni proiektu horretako azukre koxkorra, horratx! Banekien nik bai azkenean iritsiko nintzela errora: proiektu horren gailurra naiz ni. Pinpirin, poxpolin, kaxkarina. Bai, eta baita panpoxa ere diozu ama, bai, bai, hori ere bai, amatxo. Panporo-panporo eta harro esan dezakezue zuek nire gurasoak zaretela.

Aita, ni baino errekor hobea baduzula onartu behar dizut: irrati-telebistan ateratzearena, hura zen atera beharra. Eta ama, zuk, auto mota denak motorretik hasi eta kapoteraino ezagutzearena: haurretatik zetorkizun sena eta jakintza, aitonaren enpresan

ikusia eta ikasia. Baina bi ñabardura hauek alde batera utzita, egiogun kosk garrantzia duenari: zein alaba fina eta pertxenta duzuen.


Zure hiletan agertu zen apaiz kopurua, aldarean bederatzi eta herritarron artean beste eskukada bat, nahiz jendetza, hura bai ezingo dudala nik sekula lortu, aita. Orduan utzitako txarteltxoak irakurritakoan, sumatu ahal izan nuen zenbat lagundu zenion jendeari ni zure alaba soilki nintzen artean. Zenbat “eskerrik asko” irakurri nituen ahaztu ezina zait. Nor arraio izan zinen nire aita izateaz gain horren eskertza zabala utz zenezan atzean, zein betegarria izan zen ikasgai hura. Zein lagungarria. Ama, guk ere halako eskertza jasoko dugula benetan uste al duzu? Baietz? Zu bai beti andre baikorra eta sendoa. Ene! Zuen zindotasunean ezin dizuet itzalik egin, onartu dut! “Bazen garaia” diozue? Eeepa! Pasa gabe, guraso maiteak. Gainontzean datu zehatzekin frogatu baitizuet sari potoloa jaso zenutela nirekin, ni ederrenetan ederrena naizela. Hau mauka zuena.

“Bai, loti ederra”. Ale, zuek berriz ere nire bizkar barrez lehertzen. Baina hala ikus-teak pozten nau. Autoestimu igoera behar nuen eta zer nahi duzue esatea, zuekin el-karrizketa bitxi hau izatea bestelakorik ez dagoela hartarako, bikain lortu duzue. Ni be-zalako mihise politean zuen arrastoa hain da argia, irribarretsu, eskerrik asko esan besterik ez dizuedala. Onenak zarete!

Toka zekizuekeen alabarik onenak, bihotzez.

POESIA

Igel mela eta
Zapo blai:
meatz-putzu
baterantz alai



Mari Joxe
Azurtza

Bosgarren taldea
1. saria

Batzenaga 19

Igel mela eta Zapo blai: meatz-putzu baterantz alai

Igela eta zapoa goizean goiz dira biak iratzarri,
egunsentia orduko meatz putzura joanak, neuk igarri:
putzu ertzean agur egin diote elkarri;
igeri egitera joaten dira sarri,
bizipozaren zutarri.

Gaur ere ari dira bertan arin hizketan mingain-eztarri,
biak hitzekin jostari, jori, solasturi, laguntasunaren uztarri;
igelzapo hizkera niretzat arrotz harrigarri,
ulertzeko arreta behar dut jarri.

Z- Egunon, igel mela, egunak zer berri?

I- Zaharrak berri: eguna aldakor, gure aberri.

Batzuetan eguzkiak irri, bestetan lainoak mirri.

Zapo blai, zer susmo hartzen diozu horri?

Z- "Egunsentian badugu oskorri,

arratserako izango euri-iturri,

ezin esan asko edo urri".

Esaera zaharra dut zehaztasun, zorrotz-bihurri.

Putzua dute buru osasun eta bihotz hazkurri.

Gaur, baina, bietako inor ez da sosegu: nor baino nor larri dira larri,
ideiak dabilzkie kurri.

Azkenaldian denean da ur falta nabari,
eta hankaluzeak kezkatu dabilta horren kari.

Zapo blai eta igel mela ere soma ditzakegu urduri,
eguraldia ez da lehen bezala ari,
zer edo zer dabilkio xaxaka erraietan hari,
nork erasan lekiok eguratsari.

I- Bai, badugu ere uraren beharra,
putzua dago nahiko iharra.

Z- Igel mela, bota duzu ederra,
aspaldian ez da bidea lerra.

Inguruan ez dugu ur zirra.

Ikusi besterik ez dugu, begira, erreka-txindorra:
errekastoa doa erdi idorra
eta ez da egun bateko lehorra.

I- Ene, zapo blai, gaur ote dugu adurra,
botako ote du euri apurra...

Biek begiratu dute gora; ekuru dira, ezin aztora,
eguraldia ez dago beraien eskura.

Goikoak badu gura,
dena itzuliko da bere hartara.

Z- Ezin kexatuko gara:

gaur ortziak duen tankera,
aproposa da gure nahiera.

Biek gustuko dute ikusmira, ortziaren ubel-kolore distira.

Z- Baina zein da gaur zure lera?

- zapo blaik ekarri du hizkera -

Putzura ote zoaz gaur ere,
jakinik ez dagoela ia urik batere?

I - Bai, noski, gaur ere egingo dut igeri,
 berdina esan diot enarari,
 eguna ondo hasi nahi ezkeror,
 behar dudala igeri eguneror.
 Edozein egurats, zernahi zeru,
 sartu irtena nire ukendu.
 Oraingoz putzuak badu nahiko ur.

Hasperen egin du igel melak, uzkur.

I- Ez du luze iraungo mailak hor,
 izan nahi dut ordea baikor..
 bizia baita egoskor:
 adi kilkerrak, kir-kir,
 -dio begiak dir-dir-
 txio-txioka hainbat eper,
 mela-mela bi ahate oker..
 haizeak kulunkari darabiltzan hainbat garagar,
 erreka ertzeko ihi eta ostargi-belar,
 makalduta dauden bi adar,

zu eta ni uretarako gauden bi bizidun eme-har.

Zapo blaik adi dantzu igela.

Luze jarraitu dute honela,
 bata kontu-kontari, bestea isila;
 biratua dute bihotzeko maratila,
 kendua dute zekenkeriaren eskola,
 elkar urrundu zituen, behinola.

Hankan, hizketan dihardula,
 zapo blairi, erori zaio tanta mardula,
 igerian hasteko garaia iritsi ahala,
 hurbil den euritearen aurrekari apala.

Z- Ikusten dut putzuan duzula bihotza,
igel mela, sasoia eta bizipoza.
Hortxe uzten dituzu ernegu eta putza,
goizean goiz igeri eginez, ezin luza.

Zapo blairen deskribapen maratza,
aurkitu du igel melak zehatza
eta buruarekin eman dio baietza,
hunkituta... "zein egokia zure eletza".
Tximista batek jo du alboko haitza,
gainera dator ekaitza.

I - Ondo diozu, hainbat grazi eta engrazi!
Zapo blai, ni hemen naiz hazi,
eta bertan ninduten hezi.
Zenbat oroitzapen berezi!
Putzuan eta putzuagatik naiz ni bizi.
Nire etxea da! Eta nire gutizi.

Igel melari, oroitzapenak zaizkio hozi.
Begiak umel, den-denak ezin josi:

I - Putzu hori, nire bizi guzi;
etxea dut: nolatan ba orain utzi!
Orain, baina, barruan dut asuna,
putzuan da gure oraina eta etorkizuna:
etxea, bizilekua, ametsak nahiz jana.
Dena arriskuan da, banan-bana...
Osina da, lehengoaren herena.
Noren errua da, norena?

Begira horrantz! Begira honantz!

Goiz edo arrats, ikuspegia latz!

Begi aurrean hainbat mehatz.

Hats, hats... kirats.

Eguratsa ez dago aratz.

Hats, hats.. gaitz.

Herdoila arnas,

ura eskas,

negarra ariman narras...

Z - Nabari dut zugar samina,

eta ingurumari dabil sumina.

Burdin ura du putzuak, mehatz-dolumina,

pozoia du, ezin asma non jarri oina,

ea kaltetuko ote duen gure soina,

putzuan bizi al da lolina?

Ai igel mela, gaur dugu zori-ona,

entzun zagun ekaitz sona,

laster euria etorriko zaigu hona:

putzuko ura garbituko du, denontzat ona.

Zapo blaik jarri du arreta,

igel mela entzuteko hartu du beta,

eta honi, astiro, argitu zaio kopeta.

Hitz eta pitz dira duela zenbait hasita,

ustekabeko gogoeta sorta polita,

goiz nabarreko haien akeita.

I- Hementxe naiz negarminak jota,

begitara datorkit zaputz porrota,

putzua baitut nire bizi-babes kota.

Barrua hustu dut eta bota;

on egin dit, hamarrekoa zuri nire nota,

ez zara ez zapo marmota.

Z- Nire hunkipena ezin ezkuta, pozik naiz zu ezagututa.

Bat-batean, zeru sabaiak du batuta:

Erne! Tronpeta eta turuta!

Oraintxe hasi behar dugu (e)ta...

Eguraldia arras aldatu da, gainean da enbata.

Barrabas hasi da euria, a zer zarata.

Tximistak eta trumoiak! Galanta zalaparta,

euriak lurzoruaren aurka gogotik txalaparta,

onetsiak bitez iskanbila eta kalapita.

I- Zapo blai, ni banoa behingoan igeritara.

Z- Enbata honetan, hara?

Hostopean hobeto izango gara.

I- Um... Badakit ari zatzaizkidala onbera,

zerorrek leundu duzu nire afer

eta jarri nauzu alegera:

nik nahiago orain oster,

uretan zenbait jirabira,

soinketa apur bat, osasunaren harira.

Zapo blai, begira,

ingurumari bazterrak ere poztu dira,

urak esnatu ditu hango hainbat lora.

Z- Nik berriz, putzuan babesleku dut txara;

neu hemen geldituko naiz, bertatik bertara.

Biak isilik daude, blai-blai, bihotza zora-zora,

hori da hori, euria egiteko ganora.

I - Igeritarako garaia dut, noan nire zokora...

honek garbituko al du kutsadura.

Z- Oparirik onena zuretzat, datorkit burura:

igel mela, Goikoak egunon deizula.

I- Zapo blai, gal ez dezagun ohitura.

Hau dute biek agurtzeko aztura,
lagun zaharrek elkarri egindako akura,
buru-bihotz-arima azkura.

Irakurri berri duzue nire idazketa,
igel eta zapoaren arteko elkarrizketa,
sufrikario askoren iturri izan ziren meatz putzuetan hizketa.
Fabula, asmaketa,
ipuin samurra ala egoera salaketa.

Adi orduko eleta: mailu durunda eta hil ezkila,
oinordean jasotako negar-malko meta.
Egun, putzuok dira dibertsio konketa,
guztion gozamenerako, laudorioz beteta.
Dirudike kutsadura eta oroimena, biak estaltzeko apeta!

Erregu dut zuen entzuketa:
zer du kontraerak egia, zer kontradikzio seta?
Izadia ote gure existentziaren moketa ala bizi-herioaren krisketa,
noizko naturaren zainketa?
lirudike gure bilobekiko axolagabekeria kasketa

Begira honantz, begira horrantz, esperientzia barne usteen malats.
Hau ote jarraitu nahi dugun bidatza,
gaur-gero etorkizun lorratza,
ur geza bihurtuz gatza, ur gazia xaboi-gantza?
Gizarte ikuspegi motza...
Gure bilobekiko begirune kamutsa,
haiek hau jaso dezaten garratza.

*"Ez ba! - dioskute - hau dugu diru irabazia, ikuspuntu aberatsa,
gehiago nahiaren baratza,
ona da eta mesedez, gaitezen zentza..."*

Umm... ez ote da hau dena, gure zilborra aipuz eta handiustez gorestea,
"ni" a ospez erdieste, a,
zentzuz, oso zentzuz gainera,
jada deika ari den hil-kanpaiari entzungor egitea?

POESIA

Zain,
zure zain



Aroa Elortza
Bosgarren taldea
2. saria

Batenzina 19

Zain, zure zain

HITZAK

Bere hitzak
nork
irakurriko zituen,
hori galdetzen zion
bere buruari,
etengabe.
Izan ere,
hitzak hitz
diren unetik
haizeak eramaten ditu.
Hala ere,
batzuetan
barruraino sartzen dira,
eta bizipen gogor eta latzenak
ahazten ez diren lez
eramaten dira hitz horiek
odolean,
gure erraietan tatuatuta
Baina,
zergatik tematu hitzetan?
Zergatik ez
beste esanahi bat bilatu?
Hitzak hitz diren unetik,
hizkien ordena aldatu eta

hamaika hitz berri sortu.
Hamaika izatetik
ama hika izatera eraldatu
Esan gabe utzitako
hamaika gauza,
lotsa eta beldur gabe aipatu.
Mutuaren ahotik
hamaika hitz askatu.
Hizkien labirintoan
hamaika irteeraren bila abiatu.
Esan nahi eta ezin,
hamaika aldiz trabatu.
Zure hitzak nireekin
hamaika aldiz korapilatu.
Esaldi bakarrari
hamaika esanahi bilatu.
Bila aritzen denak
hamaika esanahi topatu
Hamaika aldiz isildu bagaituzte,
hamabigarrengoan oihukatu.
Baina hamaikak benetan
hamaika esan nahi ote du?

INFINITU

Horrela hasi ginen,
hamaikari buruz hizketan
gure artekoarekin jarraitzeko
hamaika motibo zeudela ohartzean.
Edo agian hainbat ziren arrazoiak,
asko apika,
edo infinitu, behar bada.
Elkarri begira
elkarrekin hitzak nahasten dira.
Eta nahasten dira ametsak,
Sentipenak, bideak.
Kiribilkatzen dira hankak,
gorputzak, bihotzak.
Elkartzen dira hitzak,
ahotsak eta hatsak.
Izozten dira hitzak,
begiradak eta zirrarak.

BI ETA BAT

Eta une horretan,
izoztutako begiradan
begietara begiratu
eta elkar aurkitu.
Bi irribarre, bi begi pare,
milaka sentimendu nahi gabe.
Begirada birekin eginik bakarra,
biren arteko sugarra,
biren arteko zirrara.
Begietara begiratu
eta elkar biluztu.
Bi pentsamendu, bi desio
bakarrarekin sortuz pasio.
Begietara begiratu

eta elkar ulertu.
Begietara begiratu
eta elkar lotsatu.
Begietara begiratu
eta elkar bilatu.
Begietara begiratu
eta elkar aurkitu.

URRUN

Baina dena ez da izaten
hitz polit eta xamur,
denborak bakoitza bere lekuan
jartzen baitu.
Eta orduan leku hori
etxetik urrun dagoen bat dela
ohartzen zara.
Eta jada zure etxea
ez dela horren etxe,
edo agian ez dela horren zure.
Alde egin beharra
suertatzen da,
edo barrutik sortu,
behar bada.
Eta kilometroak agertzen dira
tarteko.
Kilometroak ez direla ezer
bi bihotzentsat
esan ohi da.
Baina kilometroak kilometro dira,
beti.
Distantzia egunetan
hasten zara neuritzen orduan,
ez kilometro edota miliatan,
hilabete edota astetan,

baizik.

Distantzia

horixe bilakatzen baita,

atzera-kontaketa.

Zer dira ba, kilometroak

bi bihotz urraturentzat?

Edo 130 egun elkarrengandik

urrun

igaro dituzten bi bihotz zentzat?

Nola esan

ia urtebete

bere maitea itzultzeko

zain dagoenari

zer den distantzia,

ez badaki ez dela itzuliko?

Nola eskatu zoriontsu izateko

bere bihotz zati bat

17391 kilometrotara

utzi zuenari?

AMETSAK

Distantzia handitzen doanean,

egunak luzatzen diren heinean,

orduan,

une horretan,

jabetzen zara badela toki bat

non elkar ikusi dezakezen,

inolako kilometro arazo gabe,

atzerakontaketarik gabe,

zain egon beharrik izan gabe.

Une horretan ohartzen zarela

aspaldian amesteari utzi zeniola,

atsekabez inguratzean

momentu gazi-gozaok

gaziagoak direla gozo baino.

Baina bai,

hor dira,

bizirik diraute ametsek,

ezkutuan bada ere,

badaude

nonbait.

Beldurturik hasieran,

ausardiaz beterik ostean

saiatzen zara amesten,

gauero,

alferrik.

Baina,

agian

ez da amestu ez duzunik,

oroitzen ez duzula,

baizik.

Bai,

hori izango da,

hori izan behar dela

sinestaraziz joaten zara ohera,

egunero.

Behin eta berriz,

gogor eta gogoz saiatuz,

ezertarako balio ez arren.

Zuretzat ez dagoela ametsik,

bihotza lapurtu zizun herrialdean

urrutian

gelditu zirela onartzen duzu.

Edo, behar bada,

ez duela merezi amesteak,

edo zuri ez dagokizula
halakorik egiterik.
Baina ez duzu amorerik ematen,
toki ezkuturen batean,
garuneko gela ilunen batean,
nonbait
ametsak existitu behar direla,
baietz,
benetan hor egon behar direla
sinestarazten diozu zeure buruari.

Eta, agian,
etsipenaren etsipenez,
edo amorraren amorruez
gau horretan amesten duzu,
loratzen dira ametsak
mundu ilunean.
Bai, badela esperantza bat,
nahiz eta txikia izan
badela argitasun ahul bat
iluntasunaren amaieran ikusten duzu;
dena ez dela ezbeharra
eta badela zoriontasunik
zorigaiztoko mundu honetan.

Ausartzen zara amesten,
egunero,
batzuetan izerditan blai
esnatu beharra badago ere.
Hala ere,
batzuetan,
ametsak
amaigabea dirudien atzerakontaktetan

laguntzen dute,
leuntzen dute.
Ametsetan dena baita posible,
umetan agurrik esan ez zenion
aitonarekin
berriz elkartu
eta une goxoak bizitzea,
edota bizi guztian
ezinezkoa zirudien hori
egi bihurtzea,
ala milaka kilometrotara
dagoenarekin elkartzea.

Baina, zer egingo genuke
ametsetan
aurkituko bagina?
Esan gabe utzitakoak
gure ahotara ekarri, agian?
Izan ere,
esnatzean ametsak
amets
izaten jarraituko du
eta hitzak
isilpean geldituko dira,
sekretupean.

DENBORA

Amesten dut batzuetan
zure itzulerarekin,
berriz elkarrekin egotearekin.
Baina, aitortu beharra dizut,
beldurra dut.

Izan ere,
agian,
agian iritsiko da eguna,
benetakoa,
ez ametsetakoa
non elkartuko garen berriz ere
eta elkar besarkatuz
igaroko ditugun orduak.

Behar bada,
behar bada helduko da momentua
gure ametsak egi bilakatzeko,
ezintasun guztiak gaindituz
aurrera jarraitzeko.

Baliteke,
baliteke kalean elkar gurutzatu
eta ezezagunak baikinan
elkar ez agurtzea,
edota alderantzizkoa gertatzea,
errepidea korrika zeharkatu
eta zure beso artean urtzea.

Ez dakit,
izan liteke elkar ikusi genuen
azken egun hura agur bat izana
edo gero arte luze bat,
besterik ez.
Dena delakoa izanda ere,
denbora asko igaro da ordutik,
gehiegi, ziur aski.

BERTSOA

*Bergarako
famatuak*



*Haritz Bilbao,
Nahia Alberdi,
Mara Aranes eta
Ibai Rodrigo
Lehenengo taldea
Saria*

Batzenaga 19

Bergarako famatuak


(Doinua: Axuri beltza)

Bergaran badago gaztetxo bat
Pilotan oso trebea
Finalista geratu zen atzo
Ta merito ederra berea

Garitano entrenatzailea
Ta Errealean dabil
Ondo dabil Errealarekin
Ta beti denekin trankil

Vanessa oso trebea da ta
Kapitaina dugu bera
Oso azkarra baloiarekin
Aguro defenditzera

Bergarako margolari on bat
Simon Arrieta da ta
Bergaran oso famatua da
Ta eskultura bat dauka



BERTSOA

*Pelikulen
asmakizunak*

*Aranzadi
ikastolako
6. mailako
ikasleak*

*Lehenengo taldea
Saria*

Batzenzuya 19

Pelikulen asmakizunak

(Doinua: Haizeak bidali du)

Saskibalo talde bat
kanpotik ahula,
bihotzetik onenak
ez ahaztu sekula,
zailtasunak dituzte
baina ez egin burla
asmatu behar duzu
zein den pelikula

(CAMPEONES)

Miguel musika zale
amorratua zen
famiak gitarra
jotzen etzion uzten
hildakoen munduan
familia elkartzen
asmatu pelikula
mexikar hau zein den

(COCO)

Oso famatua da
magia munduan
makila magikoa
beti du eskuan
bi lagun ditu eta
hontza du onduan
ea asmatzen duzuen
zer dugun buruan.

(HARRY POTTER)

Hiru filmetatikan
azkena onena,
ta Newt hil zenean nik
hartu nuen pena.
Thomas inmunea da
ta espezialena,
Zein pelikula da hau?
asmatu izena!

(MAZE RUNNER)

BERTSOA

Gazteria



Itzaki Aldazabal
Bigarren taldea
7. saria

Batenzuya 19

Gazteria

(Doinua: Orioko balearena)

Gazteei gustatzen zaigu
asko bizioa
ta askotan sortzen da
hortik afizioa
ezin dugu onartu
bizio inbasioa
garelako hurrengo
generazioa.

Alkohola, droga, apostu
eta mugikorrak
gaur egungo bizioak
dira aldakorrak
horrek gorputz guztian
uzten ditu zorrak
kontsekuentziak ere
dira oso gogorrak

Hilketa bat izan zen
egin zigutena
gazteok drogatuta
hori nahi dutena
kendu ziguten ere
zeukagun kemena
beti lortzen dutela
komeni zaiena.



BERTSOA

*Harremanetan ere
kilometro zero*

*Garikoitz
Lopez de Munain
Hirugarren taldea
Saria*

Batzenzaga 19

Harremanetan ere kilometro zer

(Doinua: ET Aren su etenetik)

1- Jakin badakit mundua
dago globalizatuta
ta abantailak baditu
hori inork nola uka
elkarren gertu daude gaur
Oslo, Eibar ta Kalkuta
planeta txikitu zaigu
aldez alde, puntaz punta
Sareak omen gauzka gu
elkarri konektatuta
gauza batek baina nauka
deseroso, kezkatuta:
Routerrak gida dezaken
sozializazio ruta (bis).

2- Izanik hain ezberdinen
kabi sare soziala,
izanik harremantzeko
aukera horren zabala,
paradoxa bat ez al da
nik irizten diot hala,
izatea gizartea
hain hotz, indibiduala
Nolatan sinetsi dugu.
sarean aske gerala?
Identitatea egun
likidotu den bezala,
uste dut harremanekin
antzera pasatu dala (bis).

3- Nagusiki diren arren
bai gazte ta bai nerabe,
gero ta heldu gehiagok
erabiltzen du hala're
sare soziala erruz
hartu-emanen zutabe
eskarate bezala
irudiaren lurralde;
baditu hainbat bertute
ezaugarri bere alde,
urruti daudenak jarri
ditzakela parez-pare,
baina hargatik gertuko
direnak urrundu gabe (bis).


4- Gizartean duen arren
sona eta arrabotsa,
askorentzat izan arren
tresna itzela, pagotxa,
sarea ez ote dugu
erosoa bezain hotza?
Hatz lodiak baditugu
hitz, diogunaren hotsa,
nola erakutsi pena
haserrea eta poza?
Ez gabiltza oso zuzen,
hori da nire aitortza,
emotikonoa bada
emozioen ahotsa (bis).

5- Bai! Komunikazioak
ditu hamaika geruza
eta adierazteko
mila modu ta hizkuntza;
sare sozialak baiña
sarri kanpoan du funtsa
nago ikuspegi hori
ez ote dugun kamutsa,
estimulu pilaketa
sekula ez da laguntza
baldin bada norberakin
ez egoteko eskusa.
Konekta barruarekin,
konektatu barne zuntza (bis).

6- Asko errepikatzen den
irudi bat egunero:
kuadrilla bat eta denak
pantailei so, erdi ero
bakoitza berean eta
hatz lodiak bero-bero
zer jaso ta zer bialdu
estalduraren bezero,
aurrez aurrekoan mutu
elkarri begira gero
hobe elikadurakin
legez jokatu ezkeror:
harreman kontutarako
ere kilometro zero (bis).

BERTSOA

*Bergarako
euskararen
enabilerari jarriak*



*Ainhoa Pardina
Hirugarren taldea
Saria*

Batzenaga 19

Bergarako euskararen erabilerari

1- Ba al dakigu benetan zein den
Begararron izaera?
Kalera irten ta sumatzen da
euskarak duen galera;
nire iritziz, aldatu behar
genuke gure jarrera
horrela soilik igoko baita
kaleko erabilera.

2- Herritar askok daki euskaraz
guztira hiru laurdenak
ta gutxi gara egun guztian
euskaraz ari garenak
kalera irten eta erdaraz
entzuten dira gehienak
hau ikusita kolpetik nahastu
egiten zaizkit barrenak.

3- Korrika dator bi urterik behin
ta indartzen da euskara
egun hauetan oso euskaltzale
bilakatzen da Bergara
lekukoaren mezua dabil
herrian hona ta hara
baina antzerki handi bihurtzen
denaren lekuko gara.


4- Ahobizien rol-ak hartuta
Euskaraldiko bidaian
lan hori ondo egiten dugun
jarriko nuke ezbaian
Belarriprestak gu entzuteko
prest egoten dira mahaian
baina erdara irteten zaigu
hitz egiteko garaian

5- Ekimen hauek euskararentzat
beti dira positibo
baina kaleko erabilera
horrela ere ezin igo
“Euskaraz bizi nahi dut” kaletik
entzun daitekeen aldiro
hipokresia zantzuak argi
ikusten dira berriro

6- Guztia ez da kritika izango
lagunak ditu euskerak
gure hizkuntzan egiten dira
talde askoren bilerak
hauen artean dira gaztetxe,
Jardun eta martxantera
horiek dira euskerak zinez
behar dituen jarrerak

KOMIKIA


Nota txarrak



Oier Lete
Lehenengo taldea
Saria


Batzenzaga 19

NOTA TXARRAK




KOMIKIA

Google maps eta
gazteluaren
aurkikuntza



Iker Lopez eta
Lierni Hernandez
Lehenengo taldea
Saria

Batzenaga 19




KOMIKIA


Elhuyar anaiak



June De la Torre
Lehenengo taldea
Saria


Batenzuya 19





KOMIKIA

Erlojuaren
sorrera



Nagore Abad
eta Nahia Lopez
Lehenengo taldea
Saria

Batzenzuya 19

ERLOJUAREN SORRERA




KOMIKIA

Fortnite




Malen Etxaniz
Raqueeb Ullah
Bigarren taldea
7. saria

Batzenaga 19



KOMIKIA

*Txokolatea eta
bere ondorioak*



Maryam Aglyf
Bigarren taldea
2. saria

Batenzuya 19

TXOKOLATEA ETA BERE ONDORIOAK

